



Nafarroako  
Kirol Jolasak  
Otsailaren 28an  
hasiko dira  
→ 44

2010eko otsailaren 18a | XXX. urtea | 512. zenbakia

## Oihangintza

Gehigarri berezia → 33-37

### BERA → 11

Maratoi Erdian izen-  
ematea laster zabalik

### DONEZTEBE → 17

Kasinok antolatuta,  
barrikotea hilaren 27an

### LEITZA → 24

TTIPI-TTAPA jasotzeko  
harpidetza kanpaina

### IRURITA → 32

Bertsolari Txapelketako  
finalaurrekoa 27an

## Amaiur eta Beti Gazte Munduko Sokatira Txapelketara

Otsailaren 25etik 28ra Italian jokatu den Txapelketan parte hartuko dute bi talde hauek. Baztango mutilak 560 eta 600 kiloko kategorietan eta Lesakako neskak 500 eta 540 kilokoetan.



1610ean  
Zugarramurdiko  
eta inguruko 31 lagun  
zigortu zituen inkisizioak  
sorginkeriak egitea leporatu-  
ta. 400 urte beranduago,  
herritar haien omenez urte  
osoan ekitaldiak antolatu  
dituzte Zugarramurdin.

ERREPORTAJEA → 4-5

## Sorgin ehizaren 400. urteurrena

### ELKARRIZKETA → 3

**Herriko sarbideentzat soluziorik ezean,  
mobilizazioak Sunbillan**

N-121A errepidetik Sunbillara sartzeko bidegurutzeak egin zirenetik bortz lagun hil dira istripuan eta hildakorik utzi ez duten istripuak ere noiznahi gertatzen dira. Gobernuak deus egiten ez badu mobilizazioak iragarri dituzte herritarrek.

**Pako ERRANDONEA** | Sunbillako alkatea



### INBERTSIOAK → 12

**Arcelor-Mittalek  
25 milioi euro  
inbertituko du Lesakan**

Bidasoa Plana deitu egi-  
tasmoaren arabera,  
2012rako lanean izanen  
da galbanizatu eta mar-  
gotze lerro berria.

### ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu  
948 63 54 58 telefonora



  
**muebles  
ORDOKI  
altzariak**  
 ERAKUSKETA: Bittiria 26  
 SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
 Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

## ETHALAR ERDIAN ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI



  
 Tel. 943 73 09 11 / 690 69 85 18 / Fax. 943 08 11 92 / [promoetxe@promoetxe.com](mailto:promoetxe@promoetxe.com)

**170.000€**  
 tik aurrera

- > Etxebizitza ekipatuak, bizitzera sartzeko prest
- > Sukaldea eta bainugela ekipatua
- > Armairu enpotratuak logela guztietan
- > Kalitate handiko materialak, bezeroaren gustuaren arabera alda daitezkeenak

N-121A errepidetik Sunbillara sartzeko bideragurutzeetan maiz gertatzen dira istripuak, eta horietako batzuk larriak. Sarbide hori egin zenetik bortz lagun hil dira trafiko

istripuan eta herritarrak nazkatu eta aspertu dira. Soluzioa nahi dute, eta Udalak egokiena gaineko edo azpiko pasabide bat egitea dela uste du. Gobernuak, ordea, erdiko lerro

bat egitea proposatu du, eta horrekin batera, berteak bertze, Irun aldeko sarbidea kendu nahi du. Arazoari aterabiderik eman ezean, mobilizazioak iragarri ditu Udalak.

Pako ERRANDONEA | Sunbillako alkatea

# «Gobernuak deus erraten ez badigu, bidea moztuko dugu protestatzeko»

G. PIKABEA | SUNBILLA

## Aspaldi hasiak zarete soluzio bat eskatzen...

Joan den urte osoan bueltaka ibili ginen, baina ez genuen deus ere lortu. Betirako soluzio bat nahi dugu eta eurek aurkeztu duten erdiko bidearen proposamena ez da egokiena. Ez dakit zenbat ordaindu beharko dugun, dagoeneko bortz hildako izan baitira Doneztebe aldetik herrira sartzeko bidegurutze horretan, eta eskapada latzak ere gertatu dira eta gertatzen dira. Noiznahi gertatzen dira istripuak eta golpeen ondorioak somatzen dituen adineko jendea ere bada herrian. Txatarrera joan diren auto berriak ere zenbat ote dira!

## Bi sarbide ditu Sunbillak eta bietan gertatzen dira istripuak...

Sunbillak dituen bi sarrerak txarrak dira. Baina bat bederen behar bezala egiteko eskatzen dugu, eta ez digute egiten. Doneztebe aldeko sarreran, kamioiak Irun aldetik heldu direnean gertatzen dira istripu gehienak. Izan ere, tuneletik atera eta gainbeheran abiadura handia hartzen dute eta kargatuak heldu baldin badira, ezinezkoa zaie gelditzea.

## Zer proposatu du Nafarroako Gobernuak?

Gobernuak proposatu duen proiektuarekin, bi



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pako Errandonea Sunbillako alkatea «nazkatua» dago Nafarroako Gobernuak ez diolako sarbidearen arazoari soluziorik ematen.

errailak ez gurutzatu behar izateko, erdiko lerro bat eraikiko litzateke. Hartara, lerro bakarra gurutzatu beharko litzateke. Horrekin batera, Irun aldeko sarbidea ere kendu nahi digute eta hori 13 baserrietarako sarrera da. Elortxuripareko biribilgune tikiak bortz baserri ematen die sarrera eta hori ere kendu nahi da. Zer egin behar dute baserriar horiek? Proiektu horren kontrako alegazioak aurkeztu genituen bere garaian, baina ez dugu erantzuz-

**BORTZ HILDAKO**  
«Ez dakit zenbat ordaindu beharko dugun, dagoeneko bortz hildako izan baitira Doneztebe aldetik herrira sartzeko bidegurutze horretan, eta eskapada latzak ere gertatu dira eta gertatzen dira»

nik hartu. Behar bezalako biribilgune bat eginez gero, arazoa konponduko litzateke, baina go-go eta dirua behar dira. Guk gure aldetik ez dakigu zer gehiago egin, eta gainera, Gobernuaren ardura da.

## Zer proposatzen du Sunbillako Udalak?

Gaineko edo azpiko pasabidea egitea da gure ustez onena. Ingeniari bat hartu eta azterketa bat egin genuen gaineko pasabidea egiteko. Nafarroako Gobernuan aurkeztu genuen eta eu-

ren soluzioa baino hobe zela onartu zigten, baina Ur Konfederazioan ez zigitela utziko ohartarazi zigten. Eta halaxe izan zen, gibelera bota zigten uholdeetan arriskua izan zitekeela erranez. Gerora, gaineko pasabidea maldan izan beharrean, egitura batekin egitea proposatu dugu, eta hortan dago kontua.

## Mobilizazioak iragarri dituzue. Zer pentsatua duzue?

Mobilizazioekin hilabete honetan hastekoak ginen, baina Nafarroako Gobernuarekin bertze biler bat eskatu dugu eta horren esperoan gaude. Ez badigute deus erraten protestekin hasiko gara eta bidea moztuko dugu. Ez dugu guztiz zehaztua, baina hilabetean lehenbiziko ortzegunean ordu laurdeneko mozketak egitea pentsatu dugu. Eta denborekin ordu erdikoakeginen ditugu. Herritar guztiak nazkatuak gaude eta hor egonen gara. Herritarrez gain, hedabideak, alderdi politikoak, herrietako udalak... denak gonbidatuko ditugu. Bertzalde, argi gelditzea nahi dut, Udalak antolatutakoa dela, eta bidearen arazo honi soluzioa eman diezaioten eskatzeko bakarrik izanen dela, ez dugula bertzelako aldarrikapenik onartutako.

SORGINEN AUZIA ZUGARRAMURDIN → 400. URTEURRENA

# Sorgin ehizak hainbat herritar zigortu zituela 400 urte beteko dira aurten

Hildako herritarren omenez, urte osoan ekitaldiak izanen dira Zugarramurdin

XVI. eta XVII. mendeen ezaugarrietako bat nabarmentzekotan ezin alde batera utzi sorginen kondairak. Euskal Herrian sorginkeria olde bat hedatu baitzen garai hartan, eta gure eskualdeak ere somatu zuen haren eragina: Baztan, Bertizarana,

Bortzirriak, Malerreka, Xareta... Denak ukitu zituen. Baina bereziki Zugarramurdikoa izan da ezagun egin dena. Aurten, 400 urte beteko dira sorginkeriak egitea egotzita Inkisizioak hainbat herritar zigortu zituela.



## G. PIKABEA | ZUGARRAMURDI

Europa aldetik etorri zen sorginkeraren sukar hura gure eskualdera, frantziar eta espainiar estatuak euren mugak definitzen ari ziren garaietan, XVI. mendearen azken aldera eta XVII.aren hasieran. Sorginak benetan baziren ala ez eztabaidan sartu gabe, sorginetan sinesten zutenak izanen ziren, baina interesatik sorginen kontu hori baliatu ere maiz egin zen, eta horren ondorioz, frogarik gabe zigortu eta hil zituzten gizon-emakumeak aunitz izan ziren.

Sorginen inguruan hainbat kasu aipatu izan dira historian. Juainas Paul Arzak historialariak bere garaian TTIPI-TTAPAN argitaratu zuenez, 1525ean, Aurtizko San Martin elizan sorgin ospea zutenak biltzen saiatu ziren, eta 400 lagunek borondatez aurkeztu omen zuten euren burua. Horietatik 12 *sorgin* bereizi zituzten. Beranduago, berri, zenbait herritan askatasun pixka bat eska-

tuz herritarrek mugitzen hasi omen ziren. Lapurdin, Beran, Urdazubin eta Zugarramurdin, adibidez. Garai hartan Urdazubi eta Zugarramurdi San Salvador monasterioaren menpe zeuden, eta antza, herritar batzuk zergak ez ordaintzeko eskatzen hasi ziren. Sorginena aukera ona izan zen jende hori erditik kentzeko.

Gertaerak ugari, baina bada guztien artean bereziki ezagun egin dena: Zugarramurdikoa, Sorginen herria izena ere hartu duena. Aurten, gainera, sorginkeriak egitea leporatuz Inkisizioak hainbat herritar zigortu zituela 400 urte beteko dira.

## 1610EKO EPAIKETA

1608an gorabehera batzuk izan zituzten herrian, sorginak bazirela zabalitzen hasi baitzen. Horren ondotik, «saltsa haundia» sortu omen zen herrian. Horrela azaldu digu sorginen kontu hau hurbiletik segitu izan duen Koro Iratzoki herritarrek. Baina Elizan egin-

dako bilkura batean konpondu zituzten hasierako gorabehera haiek. Dena dela, hasieran herritarren arteko liskarra zena, denbora tikiian kanpora zabaldu zen.

1609ko ilbeltzean hasi zen kontua okertzen, Logroño (Errioxa) au-

zitegiko inkisidore batek sorginak zirelakoan Zugarramurdiko lau emakume atxilotu eta Logroñora eraman zituen. Erra-ten denez, Urdazubiko monasterioko abadeak salatu zituen. Urte berean inkisidoreak behin baino gehiagotan ibili ziren

inguruotan, eta tarte horretan, fede-ediktua ere ezarri zuten: «fededun guztiak derrigortuta dau-der sorginak salatzer- eskumikatuak izan nahi ez badute». Ibili eta buelta, 31 lagun espetxeratu zituzten. Horietatik gehienak zugarramurdiarrak,

## JUAINAS PAUL ARZAK HISTORIALARIK DIOENA

«Salaketa kopuruak hain ugariak ziren, guztiz sinestezina bihurtu zutela muntaia»

«Zugarramurdiko epaiketaren 400. urteurrena. Astakeria genozidak orduan izan zuen inflexio puntua edo malda aldaketa. Lapurdin bezala, Baztan-Malerreka-Bortzirietako populazioak zuen sorgin izate salaketa kopuruak hain ugariak ziren, guztiz sinestezina bihurtu zutela muntaia. Logroñoeko epaiketa izan zen bukaeraren amaiera –geroztik Inkisizioak ez zuen kasu gehi-ago onartuko– eta hasiera –epaiketa horretan plazaratu zen *Akelarre* hitza, dakigunez izugarritzko arrakasta ergelarekin, benetan ez baitziren ospatzen. Dena dela, epaiketa zaharragoak egon badira. Nafarroan bertan, XVI. mende osoa botako dute sasi-jakintsu batzuk sinesten duten sorginkeria eredu baten atzetik, herritarrek jasan beharko dituztela, batzuetan; besteetan herritar euren dira salatariak eta sinesmenaren erabiltzaileak, mendekuren bat hartu nahi dutenean. Izanen dira ziur daudenak ere, horrela uler daitekeelako bakarrik eguraldi gorria, ekaitza madarikatua, uzta hutsala, seme-alaben heriotza edo ez jaiotzea... zorigaitzaren zerrenda luzea. Hitz gutxitan: sorgin-mundua izan zen sinesmen konplexu eta zabal, denetako balio zue- na, izugarri hedatua –modu desberdinez mundu osoan– eta hagitz zaharra... Horrela izanik, aldakorra. Azkenetariko aldaketa horrek, deabruarekin lotu eta gaiztoen besta gisa ikusi eta asmatu zuenak, eman zion astakeria genozidaren arriskua. Urdazubi eta Zugarramurdiko bordariekin, San Salvador monasterioaren menpekoek, ezagutu zutena, hain zuzen».



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Herrian zein kanpoan eskaini izan dute Akelarre ikuskizuna. Argazkian protagonistak ageri dira.

baina baita urdazubiarrak eta etxalartarren bat ere. Nafarroako mendialdean 300 laguni egotzi zieten sorginkeriak egitea.

Garai hartako Inkisizioko presondegia eta auzitegia Logroñon izaki, han atxiki zituzten preso 1609ko udaberritik 1610eko udazkenera. Urte horretako azaroaren 7an eta 8an hartu zuten atxilotu-ek euren epaia: batzuk erugabe utzi zituzten, baina 11 sutan erre zituzten, sei bizirik, eta bertze bortz gizairuditan. Horixe izan zen Logroñoako Autofedea edo Zugarramurdiko sorginen epaiketa publikoak utzi zuena.

Inkisizioak ekarri zuena ikusita, beldur haundia zabaldu zen. «Edozein sorginkeriaz akusatua izaten ahal baitzen», dio Iratzokik.

#### ZABALKUNDE HAUNDIA

Oihartzun haundiko epaiketa izan zen, eta beharbada, hortaz egin izanena da ezagun. «Azaroaren 7 eta 8 hartan sekulako jendetza bildu zen

Logroñon epaiketa hur-biletik segitzeko». Garai hartako Inkisizioak ikuskizun publiko gisara hartuak ziren, eta kasu hartan Logroñotik kanpo ere jende andana joan omen zen. Horregatik, eta gertaera liburuan argitaratua izan zelako da Iratzokiren irudiko ezaguna.

Gerora auzi hark zer eragin izan zuen ez dago jakiterik. 1793an Konbentzioko Gerrantropa frantziarrek Zugarramurdi erre zuten eta Elizako agiriak 1614az geroztikoak dira. Korok erran digunez, «datu historikoak Inkisizioko dokumentuetatik hartuak dira, eta hor irakur daitezke atxilotuen datuak: Barronetxeo Graxiana, Sansineko Joanes, Bixkarreko Martin... Horatik aparte, gordetzen direnak legendak dira».

#### NOR ZIREN SORGINAK?

Zentzu negatiboan hartu izan dira historian sorginak, baina gizon, emakume eta haurrak izan ziren sorgin izenda-

### EKITALDIK URTE OSOAN

## 400. urteurrena ospatzeko ekitaldiak izanen dira urte osoan Zugarramurdi

**Otsailean**, bertzeak bertze, [www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com) web orria aurkeztu dute. Turismo aldetik herrian dagoen eskaintza biltzen du euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Horrekin batera, hil honetan museoan eta leizean hezkuntza eta pedagogia programak garatuko dira.

**Martxoan**, Logroño eta Zugarramurdiko Udalak anaiartu eginen dira. Gisa berean, *Mugarik gabeko lurpea* programaren barne anaiartu diren leizeen artean, Leizeen Eguna ospatzea aurreikusia dago. Bidaia agentzientzat, beriz, *Ateak zabalik* jardunaldiak eginen dira.

**Aste Santuan**, *Ilargi Betea*, *Sorginen Larrea* bisita antzeztuak eginen dira. Horrekin batera, **apirilean** 'Nafarroako Erreinu' Turismo Gala leizean eginen da. Oraindik guztiz zehaztua ez badago ere, seguruenik apirilaren 20an eginen da. Egun honetan, *sorginek* Akelarre bat antzezteaz gain, Nafarroako turismo sariak banatuko dira. Hilabete berean, Nafarroako eskolen artean literatur lehiaketa eta Logroñoako lpuingintza Laburaren 24. sariketa antolatuko dira.

**Maiatzean**, Zugarramurdiko umeekin herriko historia eta etxeen izenei buruzko tailerra eginen da, baita argazki *rally* ere. Horrez gain, *Sor-*

*ginak! Inkisizoaren Artxiboak eta Zugarramurdi* erakusketa ikusgai egonen da Nafarroako hainbat herritan, baita Zugarramurdi ere.

Aurten hirugarren edizioa hartuko duen Sorginen Eguna ere eginen da, **ekainaren 19an**.

**Uztailetik irailera**, bisita antzeztuak antolatuko dira, eta Cultur programak musika emanaldi bat ere eskainiko du leizean. Herritik kanpo, Oliteko Jaialdian Akelarre bat antzeztuko dute zugarramurdiarrek.

**Azaroan** Gustav Henningsen inguruan hainbat solasaldi eginen dira. Hilabete horren 7an eta 8an hildako herritarrek gogoan, argizariak piztuko dira, eta aste hondarrean Sorgin Ehizarekin lotutako ospakizunak eginen dira: kantuak, bertsoak, hitzaldiak...

Eta oraindik data finkatua ez badago ere, auzipetutako 31 «zaurdiarren» omenez, 31 zumar landatuko dira. Gainerakoan, sendabelar tailerra, dantza ikuskizuna, piroteknia eta musika ekitaldiak aurreikusi dira. Zinemaren atalean, baliteke 1610eko gertakari harekin labor bat egitea.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurtengo Sorginen Eguna ekainaren 19an eginen da.

tuak, batez ere, emakumeak. Koro Iratzokik hiru jende-multzo egin ditu sorginei buruz galde-tuta: «batetik, egiaz egun sorgin bezala ezagutzen ditugunak, hau da, jende arruntak baino ezagutza haundiagoa zutenak, eritasunak nola konpondu bazekitenak, landareak ezagutzen zituztenak...». Bigarren multzoan kristautasunaz aritu zaigu: «garai hartan kristautasuna sartua zegoen, baina oraindik lehenengo sinemen eta tradizioak ere mantentzen ziren eta tar-teka bildu egiten ziren. Eta debekatua zegoenez, gordeka bildu behar izan-

ten zuten, gauez, eta leizea toki aproposa zen». Eta azkenik askatasun bila zebiltzanak: «sorginkeria aitzakia gisa erabali zuten jende hori tratatik kentzeko».

400 urte beranduago, era berezian gogoratu nahi dituzte zigortutako herritarrek. Eta guztia helburu argiarekin: «herritar hai-

en izenak garbitu nahi ginituzke», azaldu digu Iratzokik. «Duela gutti arte Zugarramurdi sorgina pertsona gaiztoa bezala hartua zen, eta orain gutti hasi gara konturatzen gu bezalako herritarrek zirela, eta injustizia bat egin zela beraiekin. Aurten behingoz jendea hortaz konturatzea nahi dugu».



**Nire txanda**  
Ruben GARATE

## Nola aldatu diren gauzak

Idazten ari naizen hau ez da ez protesta, ezta norbaiti begirunea galtzeko modu bat ere, ez da hori nire asmoa. Bizi dugun garai hauetan ikusten ari garenari buruzko ikuspuntu bat bertzerik ez da. «Lehengoa» jendeak, «gaur egungoa» jendeak baino gehiago somatzen dituzten egoerak bertzerik ez dira. Egoera: lagun baten senide bat hil da... mundu guziak libre eskatzen du lanean, zorigaitzoko egunean lagunaren ondoan egoteko. Hortik denbora batera lagun hori ezkondu egiten da eta joateko gonbidapena bidaltzen digu, baina horren ordez, ostatuan edo bertze lekuren batean esperatzen diogu, hori bai, erabat beltzez joanen gara, hiletara ez bezala. «Lehengoa» emakume horietako batek zioenez: «denak beltzez, eta hiletara berriz, gorritz!». Horrek ez du erran nahi pertsona txarragoak edo hobeak garenik, ezta lehen orain baino hobe zenik. Erran bezala, gauzak nola aldatu diren adierazteko ikuspuntu bat da.

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Zingar-arraultze, bat ez bada...

Bidasaldeko ekonomiako arraultzeak Lesakako lantegiaren saskian bakarrik paratuak daudela aditu dugu aunitan, horrek duen arriskuarekin. Lantegi gehiago eta garrantzitsuak badira, baina gehientsuenek ez dute egoerarik onena bizi. Bidasako Planak Arcelor Mittalen ekarriko duen inbertsioari begira gaude orain. Berriz ere arraultze guziak saski berean jarriko ditugu?

## Nabarmentzekoak



Pakita ARREGI  
Ohorezko euskaltzaina

Aresoko emakumeak hainbat lan egin du euskarazko hezkuntza arloan. Horregatik sari ugari ere eskuratu ditu eta orain, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu berri du.



Patxi VILA  
Berako kirolaria

Neguko triatloian, oinezko lasterketa, bizikleta eta iraupen eskia uztartzen dituen kirolan, Espainiako txapelketan brontzezko domina lortu zuen beratarrak Ansón (Huesca).



Estitxu AROZENA  
Bertsolari lesakarra

Hiru urteko atsedenaldiaren ondotik indartsu itzuli da Nafarroako Txapelketara. Garesen otsailaren 5ean egindako kanporaketan nagusituta larunbatean ariko da Etxarri-Aranatzen.

### Atzera begira → 1998.02.26 / TTIPI-TTAPA 224. zbk



### Minbiziari aurre egiteko Lagunak elkartearen berri 1998an

Bortzirietan minbizia zuten edo izan zutenak biltzen zituen Lagunak elkartearen berri eman zuen TTIPI-TTAPAK: «Garai batean minbizia heriotza zen, gaur egun ez, orain minbizia borroka da, bizitzeko borroka. Gu ez gara inor baino ausartago edo inor baino gehiago, guk bizi nahi dugu, hori bezain ximplea da», zioten elkartekideek. Jendeak beldur eta tabuak kendu eta «minbiziak lasai ederrean solastea nahi dugu, gripeaz solasten ahal den bezala».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Urteko lehen arantza

Joseba URKIOLA

2010. urteko urtarrilaren 12a. Asteartea. Gaueko 21:53. Sortua da urteko lehen notizia garantzitsua. Ertamerikako herrialde batera bisita berezi eta partikularra egin du Richter etxeko anaia zaharrenetako batek. Herrialdea suntsitua geratu da. Eraikinak ezerezean murgildu dira. Odolak eta negar malkoek ziprztindu dituzte karrikak. Ezinaren eta tris-turaren ulua dira 10 milioi pasatxoko Ameriketako herrialde txiroenaren soinu banda. Urtea hasi eta 12. egunerako gisa hone-tako triskantza. Urte Zahar gauean, fresko zegoen xanpaiak, azken mahats alea gaizki irenstaraztea behartu ote gintuen? Hala, ontzian utzi genuen kanpaien erritmo bizia-ri ezin jarraituaz? Ez dakit, auskalo. Abenduaren 22an San Ildefonsoko haurrek ateratako zenbakia potoloa Madrilan joan zela esan ziguten. Baina keba, hori ez da egia. Gabonetako Loteria erosterakoan beti esaten da, «guri tokatu ezean, behartsuenak gozatzeko aukera badauka konforme». Hara, nahia egia bihurtua. Urtarrilaren 12tik aurrera ederki jakin ahal izan da, berezia dela saria aurten. 100.000 hildako pasatxo, milaka lagun etxerik gabe, Titanik ontzia baino hondoratuago geratuko den ekonomia eta etorkizun beltza. Horiexek emaitzak, reintegro eta guzti. Azken egune-tan askotan entzun izan da, lurrikaren aurka ez dagoela ezer egiterik. Naturak belarrondokoa ematen duenean, aurpegia jarri besterik ez dagoela. Baina hemen gauzak, normalki behintzat, zerbaitengatik sortzen dira eta badute izan beren arrazoia. Mendebaldeak badu zorra eta errua, Haiti herrialdearekin. Ezin ahan-tzi Ertamerikako herrialdea dela deskolonizazio prozesuan independizatu zen lehena. Garesti xamar kostatuta zitaion uestezko burujabetza. Frantziak askatasunaren truk orduko 150 urrezko franko ordaintzea behartu zuen. Geroztik herriak ez du altxa bururik. Ez dagoen lekutik dirua lortzea zaila baita benetan. Hori gutxi ez eta Europak, GH telebista saioa baililtzan, Frantzia gidari nagusi hartuta beti jarraitu izan du bere begi partikularrekin. Interes propiorako gehi-enean. Urteko lehen arantzak, dolua sortu du munduan. Leku txarretik barruraino sartu da. Hollywoodeko ametsen faktoriak badu heldu den urteetarako gidoi perfektua. 3 dimentsiotan bada gainera, areto guztiak mukurutu eta patrikak ederki beteko dituzte. Halere, gisa honetako gertaerak ekidin daitezzen herrialde guztiak biltzen direnean kontsentsua lor dezaten gidoi edo formula asmatuko ote dute?. Kola edariarena askoren esanetan bikaina omen da. Bada ez dakizue, nazio guztien batasuna lortzeak ze nolako bizipoza eman-gor lukeen. Hori bai bost izarreko filmea.

«Mendebaldeak badu zorra eta errua, Haitirekin. Ertamerikako herrialdea da deskolonizazioan independizatu zen lehena»

### Sortu eta eragin!

Oskar ZAPATA (Nafarroako Topagunea)

Kaguenka! bukatu genuen 2009. urtea Topaguneko, euskalgintzako beste hainbat eragilek bezala: haserre, irainduta, nazkatuta... Hau da, toxinaz beteta. Nahikotxo hitz egin da euskarazko hedabideek merezi ez duten tratuz. Hauze da gertatu denaren gainean egin dezakegun irakurketa positibo bakarra: hainbat enteratu dira existitzen garela eta egituratu samar gaudela, eta bestetik Euskarabidearen sorrerarekin Nafarroako Gobernuak egin zuen distrakzio maniobra berez erori egin dela, agerian gertatuz, daraman hizkuntza politika euskarafobiko, mendekatzaile eta aldeanoa ezkutatzeko, Euskarabidea erabiltzea dela euren asmo bakarra, horretarako Euskarabideako zuzendaria ipurdia agerian utzi behar badu ere. Gero elkarbizitzaz hitz eginen digute. Nork eta gizartearen gutxiengo handi baten nahiak, eskubideak eta kultura errespetatzen ez dituenak. Azken bi urteko aurrekontuek euskararen erabilera sustatzeko ekimen guztiak kaltetzea dute helburu. Eraso erabatekoa da, helburu garbia duena: euskaraz bizi nahi dugunontzako esparruak irabazteko egindako lanak ahalik eta gehien tratatzea, horretan aritzen diren eragileei diru laguntzak erabat murriztuz. Nafarroako euskaltzaleok, gure Gobernuaren babes juridiko, politiko eta ekonomikorik gabe aurrera egin behar dugu. Egoera larria dela jakin badakigu. Horren aurrean zer? Bi planotan lan egin behar dugu: sormenetik tiraka auzoz-auzo, herriz-herriz antolatuz, hiztun sareak osatu, diru iturri berriak bilatu... bestetik Nafarroako euskaltzaleon nahia ozena-go entzun dadin ekimen bateratuak antolatuz; Nafarroan gero eta euskaltzale gehiago egon gaitezen diskurtso eta ekimen erakargarriak gizarteratu, politikariek harremanak ugaritu, botere ekonomikoarengan eragin, kale agerpen indartsuak egin... Auzoz auzo saretze lan horretan, zerbait aurreratua dugula esan dezakegu, ez baita alferrik urteetan euskalgintzak langintza horretan sortutakoa: ikastolak, euskaltegiak, hedabideak, aisialdi eta kultur programa... Bigarrenari dagokionean, Topagunea etxeko lanak egiten ari da; urteotan, euskararen erabilera eragitea helburuarekin sortu diren euskara elkarte eta ia hedabide guztiak federatu dira Topagunean. Ondorioz, euskalgintzaren hanka bat Topagunearen inguruan egituratu da eta horrek lagungarri izan behar luke Nafarroako euskalgintza egituratzen eta batzen. Beraz, Topagunea prest dago, Nafarroako euskalgintza eta euskaltzaleekin diskurtso eta dinamika adostu eta elkarlanean aritzeko. *El Drogasek* esana: Pentsatzeari uzteko garaia iritsiko zaigu hiltzen garenean, bitartean...

«Topagunea prest dago euskalgintza eta euskaltzaleekin diskurtso eta dinamika adostu eta elkarlanean aritzeko»

## Irakurleak mintzo

Txileko  
presidente  
berriari  
Baztango  
Udalak  
egindako  
gonbitaz

## Baztango Ezker Abertzalea

Baztango Udaletxeak NaBairen ekimenez eta UPNren babesarekin, Txileko presidente berria den Sebastian Piñeirari zorionak eman dizkio, amaren aldetik Baztanen erroak dituelako. Halaber, Baztan bisitatze eskaintza egin dio; horren inguruan honakoak agertu nahi ditugu:

Txileko hauteskundeak irabazi berri dituen Sebastian Piñeira multimilioiduna eta eskuindarra Pinotxeten diktadura aldiaren aberrastu zela, eta, hortan, segur aski, zer ikusia izanen zuela bere anaia, Jose Piñeira, Pinotxet diktadorearen gobernuaren Lan eta Meategietako ministro aritu izana.

Modu berean, Txileko presidentetza eskuratu berri duen honetan, "Renovación Nacional" eta "Unión democrática Independiente" talde Pinochet-zaleen babesa hartu du. Horrela, hauteskundearen gauean, emaitzen ospakizunetan ari zirela "viva Pinochet" ohiukatzen zuten harat hurbildutakoek.

Bertzalde, udal-letxearen idatzian Piñei-

raren lana Txileko herriaren alde izanen dela erraten da; baieztapen horrekin ez dugu inolaz ere bat egiten, zeren Piñeirak ordezkatzeko dituen klase interesak Txileko oligarkiarenak baitira, eta bere programa politikoa guztiz neoliberala da; horregatik, Txileko langileriaren eta herriko sektoreen kontrakoa. Halaber, Txile barnean Maputxe herriak jasaten duen zampaketa, segur aski indartuko da.

Baldintza horietan Baztango udaletxeak hartutako erabakiari buruz gure desadostasuna agertu, eta, Nabaik duen noraez ideologiko eta politikoa agerian utzi nahi dugu. Arrontean ulertezina da Piñeira bezalako erreferente politikoa neoliberal eta eskuindar bati erakusten dioten pleitesia.

Akitzeko, Txilen baztandar jatorria duten langile eta herritar arruntei gure agur beroa eskaini eta Baztanen beti besoak zabalik hartuko ditugula erran nahi diegu; halaber, Txileko langile, herri sektore eta maputxe herriari besarkada internazionalista bat bidali nahiko genioke.

Leitzak erosi  
Ibero? Ze  
Gineserako?!

Patziku PERURENA  
(Itzaideko txabolaik)

Honek Gineserako balio lezake, bai. 2010ko



## Bota bertsoa

Jose Luis BARBERIA Zili (Leitza) • Doinua: Izarren hautsa

## Ikusiko ote da ETB Nafarroan?

Txantxangorriaren txorrotxioa etxean sartuz egunero haziak gara umeetatik Euskera mintzoan bero, Lazkao Txiki, Son Goku, Krilin, Kirolez Kirol, Goenkale berdin, guztiak ikusiz ero bizi izan gara analogikoz telebista piztu ezker ta azken aldiaren ez dira ikusten seinalea baita zero. Digitala da gaur desioa, milloi bat omen da prezioa, etzen izango endredo Gobernua prest balego!

Naturak beti erasotzeko joera dauka ahulari ta elkartasuna jaso behar du maite dutenen opari. Gobernuaren lehen baldintza errespetatu herriaren hitza, ETB dugu gurari! Egur gehiago zergatik bota itzalitako suari, bakezko hitzak izan behar du konponbidean gidari. Euskera baita gure hizkuntza, Milloi bat ezin da izan eskusa! Euskal Herria du kabi segi dezala kantari!!!

otsailaren 4ko Ttipi-Ttapa, 42. orrian, hauxe dio Leitzako Udalen proiektuek: «Ibero ingurua erostea izanen da inbertsiorik nagusiena». Aldi berean badu Leitzako Udalak, Suteen Elkartekoei bakarrik bidalitako orria, eta hartan esaten zaie kideei, Udalak eskeintza egina diela 227.000 eurotan, baina, nahiago lukeela Ibero doan itzuliko baliote. Sekulan ez dut holarako markarik ikusi. Haur bati esatea bezala baita: «inbertsiorik haundiena zurekin egingen dugu: tori 227000 euro goxoki honengatik, baina, nahiago nuke doan emanen bazenit». Ez al da Gineserakoa?...

Ez naiz luzatuko. Interesik baduzu, bila glooglen «Ibero sutan, eta denak isilik» artikulua, eta leitu faborez. Hitzokintxe bukatzen nuen: «edozein interes pribatu saihestuz, komisio zorrotza sortu beharko luke Udalak, lo-

tsagatik ere, auzi absurdo hau lehenbailen likidatzeko. Inork ez baitu horretarako, ez eta Elkarteak berak ere, Udalak adinako autoritate moralik».

Ez alferrik! Bistan baita Suteen Elkarteak titerea bezalaxe darabilena Udala. Bai, badi-rudi lasartetarrek Udaletik 1892an atera zuten mahuka hura, orain, berriz atzera, lasartetarren mahuka bihurtu dela Udalean bertan, baina mila bider ustela-

gotua. Zergatik? Orduan kasik Leitza guzia baitzen elkarteko kide, eta inolako animo lukratiborik gabe; gaur ordea ehunetik bat ere ez, eta hura animo lukratibo lotsagabe hutsarekin, gainerako %99 leitzarroi burla eta iruzur garbia eginez. Eta gure interesak, %99 leitzar zerga pagatzaile soilonak, nork zainduko ditu? Leitzan bertako politikoeak? Iruñeko Kontu Ganbarak?... Ez du itxura haundirik.



**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Buruan nuena poliki-poliki joan ginen irudikatzen, eta harria, hormigoia eta burdina erabiliz, itxura hartzen joan zen (...) Nire aita hil eta handik gutxira, lurra lantzen ari nintzela aurkitu nuen [Neolito garaiko aizkora]. Harria landua zegoela ikusi nuen eta Aranzadi Elkartera eraman nuen aztertzerara. Egin beharreko azterketak egin, eta harriak 4.000 urte zituela esan zidaten».

**Iñaki PERURENA**  
Leitzako Peru Harri museoa  
AIZUI, 2010eko otsaila

«Gu izan gara ohitura honi eutsi diogunak. Beste herrietan joaldunak izan badira, galdu dira. Oraingo talde horiek gure inguruan sortu dira, eta errespetua eskatzen diegu: ez dezatela sortu elkarte bat Euskal Herriko joaldunen elkartearekin direla esanez, eta gero gu hor sartzen saiatu. Beraien ez zuten interesik elkartearekin gure inguruan osatzeko, gu barrenean sartzeko baizik».

**Pello SANTESTEBAN**  
Zubietako joalduna  
ARGIA, 2010-01-31

**11 galdera labur**

**Pilotan jokatzeko ala erakusteko, zer da errazagoa?**

Jokatzea.

**Zer da pilota eskolan haurrei erakusten diezun lehenbiziko gauza?**

Sakea ateratzea.

**Afizionatuetatik profesionalera salto egitea zaila al da?**

Batzuentzat bai, besteentzako ez.

**Txapel bat baino gehiago irabaziak badituzu, baten bat berezia?**

Nik uste ezetz.

**Pilotari bat?**

Aurrelaria Irujo eta atzelaria Barriola.

**Bolada batez pilota utzita ibili zinen...**

Lau hilabete geldirik egin nituen, eta egia esan ongi etorri zitzaizkidan berriz ere ilusioa errekupe-ratzeko.

**Zergatik utzi zenuen?**

Gora ez nintzela pasako ikusten nuen eta etsita nengoen. Eta hortaz aparte, eskuetan arazo dezentea nuen. Baina lau hilabete horietan sendatu nuen eta berriz ere buelta.

**Besta egiteko tarterik izaten duzu?**

Horretarako beti izaten da.

**Bizitzeko toki bat?**

Areso.

**Baduzu pilotaz aparte bertze afizionarik? Ehi-za.**

**Amets bat?**

Pilotari profesional izatea.



**Unai ONSALO → Aresoko gaztea**

**2010 / 2011 IKASTURTEA**

**TOKI ONA BHI BERA - NAFARROA**

**LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK**  
 Industria ekipoen mantenimenduan  
**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
 Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa  
 eta mantenimendu elektromekanikoan  
**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**AURREINSKRIPZIOA MARTXOAREN 2tik 9ra | MATRIKULA UZTAILEAN**

Tel.: 948 625 000 | e-mail: iesbera@pnte.cfnavarra.es | Web orria: http://irati.pnte.cfnavarra.es/iestokiona/

## KULTURA

EUSKAL KANTUGINTZA → NAFARROAKO HAUR KANTARI JAIALDIAK

# Haur kantari jaialdian izena emateko epea otsaileko azken astean itxiko da

Martxoaren 6an Elizondoko Lur Aretoan egingen da bigarren saioa

## TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak bertze urte batez Haur Kantari Jaialdiak antolatu ditu. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta otsailaren azken astera arte egonen da horretarako aukera. Kantuzale Elkarteak 948 144706 telefono zenbakira deituz edo *nafarroa-garaia@kantuzale.net* helbide elektronikoa egin daiteke. Horrez gain, Nafarroako edozein irratik euskaldunetan ere apuntatzen ahal da. Eskualdeari dagokionez,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela zenbait urte, Xapo taldea Lur dantzalekuan kantari.

Xorroxin Irratiaren 948 581226 edo Leitzako Karrape Irratiaren 948 610914 telefonoetan.

Ikastetxe bakoitzak bi talde, bikote bat eta bakarlarri bat aurkez-

ditzake eta partaide bakoitzak bi kanta egin ditzake, nahi duen modukoa, izan zaharra, berria edo norberak sortua. Aitzineko edizioetan, Kantuzale Elkarte-

ak bi kanta aurkezteko aholkatu izan du.

## MARTXOAREN 6AN ELIZONDON

Lehenbiziko jaialdia otsailaren 27an Antsoai-

nen egingen da, 18:00-etan hasita. Bigarren saioa Elizondoko Lur dantzalekuan egingen da, martxoaren 6an, 18:00-etan. Hirugarren saioa martxoaren 13an izanen da; laugarrena martxoaren 20an eta azken saioa martxoaren 28an Iruñeko Gaiarre antzokian, 11:30ean hasita.

Egoera ekonomikoa ez da sobera ona Kantuzale Elkarteak, eta hala, aurten ez da ez da saririk banatuko Gaiarre antzokian. Horren ordez, opari bat emanen da.

Lerro hauek idazterakoan jaialdia antolatzeko zenbateko aurrekontua izanen duen ez zegoen zehaztua, baina gutti goitibeheiti 20.000 eurokoa izanen dela aipatu digute elkartetik.

**SALGAI - HONDARREN FERIA**  
**FERIA DEL SALDO**  
**SOLDES EXCEPTIONNELLES**

2010  
**OTSAILAK 28 IGANDEA**  
**DOMINGO 28 DE FEBRERO**

10 h. → 19:30 h.  
**KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO BERA**

antolatzailak / organizadores

**AGARA** kirolak  
**ARTIEDA M.** lentzeria  
**ARTURO** arropa-denda  
**DUUE** ileapaindegia-estetika  
**EDURNE** haur arropa-denda  
**IGONE** liburu eta paper-denda

**KALOTXA** opariak eta osagarriak  
**MARTZUTZAK** arropa-bitxiak  
**YOAN** ileapaindegia  
**ZELA** kirolak  
**MIKKALA** haur arropa denda  
**MANOLO** ferreteria

laguntzailak colaboradores

**BERANDUJALA** **Gobierno de Navarra**

LANA → ERREGULAZIOAK

## Composites Gureako lan espedientea onartu du Gobernuak

54 langiletik 34ri eraginen die hirugarren ERE honek

### TTIPI-TTAPA

Composites Gurea lantegiko zuzendaritzak aurkeztutako lan espedientea onartu egin du Nafarroako Gobernuak. Hirugarren EREa da onartutako hau eta otsailetik urte bukaera arteko 11 hilabetetan erregulazioan egonen dira langileak. 54 langiletik 34ri eraginen die ERE honek.

Grupo Madme taldearen baitan dago Composites Gurea, Legorretako Prodemarekin batera. Talde honek barrenerako nahiz kanporako panelak egiten ditu eta beraz, %100ean eraikuntza sektorearen menpe dago.

Bi lantegietako Langileen Batzordeen (ELA eta LAB) irudiko, ordea, EREerako arrazoirik ez dago. Eraikuntza arloan izan diren oparoaldi urteetan Madme taldeak «irabazi ikaragarriak» izan dituela oinarazi dute eta akziodunen artean, «hiru milioi

euroko dibidenduak banatu dituzte 2004 eta 2008 urteen artean Prodeman, eta bertze horrenbertze Composites Gurean».

### MOBILIZAZIOAK

Langileek mobilizazioak iragarri dituzte. Hala, hiru greba egun egitekoak dira: lehenbizikoa otsailaren 12an egin zuten eta hurrengo bertze biak ortzegun eta ortziral honetan izanen dira, otsailak 18 eta 19.

### Salgai-hondarren azoka otsailaren 28an

Aitzineko urteetako arrakasta ikusita, aurten hirugarrenez, salgai-hondarren feria egitea erabaki du Larun-Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak.

Udala, Nafarroako Kutxa eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin hilaren 28an egingo da, igandearekin. 10:00etatik 19:30era herriko 12 dendarik stockean dituzten artikulak prezio onean eskainiko dituzte Toki-Ona Kiroldegian.



ARGAZKIA: GOIKO

### Santa Ageda bezperan kantuan

Otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izanik, Labiaga Ikastolakoak aurten lehenbizikoa aldiz kalera atera ziren. Ikastolako ikasle, irakasle, guraso eta ikasle ohiak baserritarrez jauntzita Eztegarako ikastolatik atera eta karrketan barna koplak kantatzen ibili ziren. Itzea, Altzate, Legia, Kanttonberri, Iturlandeta eta Eztegaran barna egin zuten itzulia.

## Maratoi erdian izena emateko epea martxoaren 1etik aitzinera zabalik

Aurten seigarren urtez, apirilaren 11n Mendi Maratoi Erdia egingen da, eta parte hartu nahi duenak martxoaren 1etik aitzinera izanen du izen-emateko aukera, [www.mantale.com](http://www.mantale.com) web orrian. Aipatu, joan den urtean bezala, Nafarroako Koparako puntugarria izanen dela.

450 lasterkaritan ezarri dute parte hartzeko muga, eta izena ematera-koan 20 euro ordaindu beharko di-

ra. Ibilbidea aitzineko urteetakoaren berdina izanen da: 2.714,60 metroko desnibela eta 21,150 kilometroko luzera izanen ditu.

### GAZTETXOAK ERE KORRIKA

Egun berean, gaztetxoek ere izanen dute lasterka ibiltzeko modua, 15-17 urte bitartekoentzat Ibardinera 6,6 kilometroko lasterketa egingen baita.



ARGAZKIAK: J. IRIGOIEN

### Inauteriak ospatzen lehenak gaztetxoak

Inauterietako ospakizunei hasiera ematen lehenbizikoak neska-mutiko gaztetxoak izan ziren. Elurak eta hotzak ez zituen beldurtu, eta otsailaren 11n, Ortzegun Gizen egunean, eskean ibili ziren herrian barna, bakoitzak bere mozo-rrua jauntzita.

**sarobe**  
geotegia ohindegia

7º de Arlegara 25 baxo 1948 63 08 99  
31700 Bera (Navarra) [www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

# LESAKA

LANA → ARCELOR-MITTALEK INBERTSIOA

## Galbanizatu eta margotze lerro berria 2012 hasierarako lanean izanen da

Bidasoa  
Planaren  
30 milioietatik  
25 herriko  
lantegian  
erabiliko dira

### Aitor AROTZENA

Denbora baterako EREa ekaina bitarte luzatu bada ere, badirudi herriko Arcelor-Mittal lantegian lana berretuko dela. Hain zuzen Bidasoa Planeko obretarako iragarrita dagoen 30 milioiko inbertsioetik 25 milioi Lesakan inbertituko dira, galbanizatu eta margotze lerro konbinatu berrian. Enpresatik aipatu dutenez, inbertsio epeak betetzen ari dira eta lerro osoa 2012 hasierarako lanean izatea espero dute eta margotze lerroa oraindik lehenago, urte honen akabailarako. Inbertsio honek «Lesakako lantegiaren etorkizuna segurtatzen» omen du.

### Beti Gazte eta San Fermin elkarten batzarrak

San Fermin erretiratu eta pentsionisten elkarteak otsailaren 20an

eginen du bere XVII. ohiko batzarra, 18:00etan elkartearen egoitzan. Joan den urteko akta irakurri eta ekitaldiak eta kontuak aztertu ondoren, aurtengo aurrekontua eta egitaraua zehaztuko dute. Bertze aldetik, San Ferminek antolatzen dituen neguko mus, seien eta despiste txapelketetan parte hartzeko otsailaren 24a baino lehen eman behar da izena.

Beti Gazte elkarteak otsailaren 27an egingen du urteko batzarra, 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenean. Ohiko gaiak landuko dituzte hemen ere.

### Tortura eta lesioak egotzi dizkie fiskalak Igor eta Mattin atxilotu zutenei

Donostiako Epaitegiko Fiskaltzak Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatu izana egotzi die bi herritarrak atxilotu zituzten edo atxiloaldian horien zaintzan aritu ziren lau guardia zibili. Hiru urteko kartzela eskatu du sarjentu batenzat eta kabo batentzat, eta bina urtekoa bertze kabo eta guardia zibil batenzat. Bertze sei



UTZITAKO ARGAZKIA

### Presoen aldeko asteburuko baraualdia eta kontzentrazioa

Euskal presoak kartzeletan egiten ari diren borrokarekin bat eginez, Bortzirietako presoen senide eta lagunek baraualdia egin zuten urtarrilaren 29tik 31ra udaletxearen erabilera anitzeko aretoan. Baraualdia bukatzeko, urtarrilaren 31n txandakako kontzentrazioa egin zen Plaza Zaharrean, kultura, kirola, merkataritza, lan mundua eta bertze gizarte arloetako eragileekin.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

### 'Azken urratsa' filmea grabatzen aritu dira Nabazen

Munduko Bigarren Gerra garaian, naziek hartutako Frantziar eroritako hegazkin pilotu aliatuei ihes egiten lagundu ziren Comete Sareari eskainitako film dokumental historikoaren dramatizazio irudiak hartzen aritu dira Nabaz auzoan, Pikabea eta Mairuerregenekoborda baserri atarietan. Film dokumentalean, sarea osatu zuen jendearen testigantzak biltzen dira eta orduko irudi eta argazkiak ere erabiltzen dituzte. Baina orduko gertakariak azaltzeko dramatizazioak ere egiten dituzte, Lesakan eta bertze hainbat lekutan.

akusaturi «lesioak» eragin izana egotzi die. Ber-

tze txostenak ikusi eta erabakiko du epaileak

zenbat akusatu eramanen dituen auzitara.

 **ALVARO LOPEZ**  
Eskaiola, pladur lanak, sabai modularra, tabikeak  
OBRA ZIURTAGIRIAK  
LESAKA • 651 704 593

**BOZZ-AIDE**  
JAVARDEWIA  
Berritzaileak, 3<sup>er</sup> Lesaka  
Tel: 948 637 127

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak  
Berritzaileak, 3<sup>er</sup> Lesaka  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**  
ZABIA  
JATETXEA  
T: 948 637 260 - LESAKA

HERRIA → AUZOLANA

## Ohitura zaharrei segituz, auzolana berreskuratuko da

Bakoitzak aukera dezake zein lan egin edo bertzela Udalak proposatuko du

### Joseba eta Nerea

Dagoeneko urte batzuk pasatu dira etxalarren auzolanak egiten zituztenetik. Ohitura hau baserriar aunitzek ez dute oraindik galdu eta urtean behin edo gehiagotan euren baserrietako bideak eta kunetak garbitzen dituzte. Patxiku Irisarri alkateak erran digunez, hemendik aitzinera Udalaren nahia baserrikoek gain, herrikoek ere auzolanak egitea da.

### NORK EGIN BEHARKO DITU AUZOLANAK?

Etxalarren bizi diren 18 urtetik 55 urte arteko herritarrek, erroldatuek eta zentsuan sartuta daudenek egin beharko dituzte auzolanak. Horretarako plan bat prestatu-

ko du Udalak. Bi aukera izanen dituzte herritarrek: lehena norberak aukeratzea zein lan egin nahi duen eta Udalari hori eskatzea, urtea akabatu baino lehen egiteko. Bigarrena Udalak agintzen duen lekura joan eta errandakoa egitea.

### BIDE BAZTERRAK ETA MENDI-LANAK

Egin beharreko lanen artean, bide bazterrak eta kunetak garbitzea, kunetak zimentatzea eta pistaren batean zementua edo *todouno* botatzea daude, bertzeak dagozte. Mendiari dago-

kionez, arbolak landatu eta kimatzea, itxidurak egitea, pistetan ur-errekak egitea eta mantentzea, lehengo bide zaharrak eta bidaxkak garbitzea eta bide eta erre-pide bazterretan atsedentokiak jartzea daude. Bertzelan batzuk ere

aipatu ditu Irisarri: iturriak berreskuratzea, erreko zubitxoak mantentzea, kislabeak berreskuratzea eta harrizko paretak zutik mantentzea. Alkateak argi erran digu auzolana arautzen duen udal ordenantzak dionez, herritar bakoitza lau auzolan egitera behartua dagoela.

### 30 EUROKO ISUNA

Oraindik, ordea, Udalak ez du erabaki aurtengoan zenbat auzolan egiten dituen herritar bakoitzak. Lehen bezala, orain ere, auzolana egiten ez duenak diruz ordaindu beharko du 30 euro inguruko multa.

### Larraburuko Batzar Orokorra

Igandehonetan, hilak 21, 12:30ean Larraburuan urteko Batzar Orokorra egiten dute. Eztabaidatu behar diren gaien garrantzia dela eta, elkarte ko bazkideei dei berezia egin zaie batzar horretara joateko. Ondotik, hamaiketako izanen da.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Okindegi berria ireki da Etxalarren: Harizpe

Joan den otsailaren 6an okindegi berria inauguratu zuen Xabier Leiza herritarrek. *Harizpe Etxalarko zaporea* du bere logotipoa eta 05:30etik 12:00etara irekiko du. Xabierrek erran digunez, hiru ogi mota eginez hasi da; haundiak, ttikiak eta rustikoa edo etxekoa deitzen dena. Honez gain, napolitanak eta kruasanak saltzen ditu, baina ez dira izoztuak; etxean eginak baizik. Gozogintza gehiago sartzeko intentzioa ere badu. Ilusio handiarekin hasi dela aipatu digu eta espero duela herritarrek aukera bat ematea negozioarekin aitzinera egiteko.

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi  
MARKA GUZIEH KONPONKETA  
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESACA (samera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BAR  
Botxo  
OSTATUA  
Zelaia • BERA • 948 630 052

José I. Gonzalez Enguita  
pinturak  
barrukoak eta fatxadak  
tel. 666 235 466

LABEZAR  
Tel: 948 631 076 - BERA

Lanchas  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tlhoz: 948 630 735 - 407 406 781

# IGANTZI

**BILTOKI ELKARTEA → ZUZENDARITZA BERRIA**

## Idoia Urtxegi izendatu dute Biltoki elkarteko lehendakari berri

Bertze hiru  
bokal berri sartu  
dira Juntan

### TTIPI-TTAPA

Junta berri dute Biltoki elkartean. Urtarrilaren 23an urteroko ohiko batzarra egin zen eta lau kide berri sartu ziren zuzendaritzan. Orain arte Lurdes Ibarluzeak izan duen lehendakari kargua Idoia Urtxegiren eskutan gelditu da, eta bertze hiru bokal berri ere sartu dira.

Bertzalde, herriko bestetan elkarte irekia egotea ere erabaki zen. Urteetan ostatu bezala funtzionatu du San Migeletan, baina iaz lehen aldiz itxia egon zen. Azken batzar horretan erabaki zen aurten eguero irekiko dela, baina bazkideentzat bakarrik, 20:00etatik 00:00etara. Gainerako orduetan itxia egon da.

### MUS TXAPELKETAK

Biltokik antolatuta, mus eta partxis txapelketak jokatu dira eta joan den larunbatean hilak 14, jokatzekoak ziren erdifinalak eta finalak. Gero afaria egitekoa zen.

### Ingelesa praktikatzeko kanpaldia

Ingelesa lantzeko kanpaldian parte hartuko dute Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek. Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen ingelesezko kanpaldi batzuetan parte hartzeko eskaera egin zuen eskolak eta Nafarroako Gobernuak onartu egin die eta beraz, parte hartzeko aukera izanen dute. Martxoaren 15etik 18ra, Irunberrin (Nafarroa) egonen dira, Nafarroako bertze ikastetxe batzuetako ikasleekin eta irakasle natibo batzuekin.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Giro eta umore onean inauteriak

Aurten ere gazte kuadrilla ederra elkartu zen inauterietan eskean ibiltzeko, eta giro ederrean ibili ziren etxex etxe. Haurrek eta helduek ere izan zuten inauterietan ongi pasatzeko tartea.



ARGAZKIA: GOIKO

### Unai eta Enaitz Bortzirietako txapeldun

Badu pilotak etorkizuna herrian. Eta emaitzei erreparatu bertzerik ez dago hortaz konturatzeko. Gaztetxoak dira oraindik Unai Telletxea eta Enaitz Telletxea baina pilotan ederki moldatzen direla erakutsi izan dute lehen ere. Azken txapela Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketan lortutakoa izan da. Enaitzek benjaminen mailan 18-6 irabazi zion Gure Txokoako Yago Canterori, eta haurretan, Unai Telletxeak 18-9 irabazi zion Txarutako David Albiasuri.



OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Inauterien ondotik Mozorro Besta eginen da martxoan

30etik goiti bildu  
dira Mozorro  
Xurien kuadrillan

### Nerea ALTZURI

Mozorro antolatzaileek ortzegun, ortzirala eta larunbata aukeratu zituzten hilabetea besta giroan hasteko. Ohiko arropak eta puxkak paratu eta hortxe ibili ziren Mozorro Xuriak puskak biltzen. Ezkongabeko mutilak izan ohi dira Mozorro Xuriak... Behin baino gehiagotan erraten dute, ordea, neskak ere ez direla baztertzeko, eta nahi duena Mozorro ateratzen ahal dela. Hori bai, ezkon-duta, mozorro ateratzetik ez, hori da behintzat lehengo ohitura, nahiz eta bat baino gehiago gogoarekin gelditu. Musikiariak, halere, neskak, guztiak: Itziar Mitxelena, Tania Indakoetxea eta Aintzane eta Gurutze Pikabea.

### GIRO EDERRA

Ortzegunean, hilak 4, 30etik gora Mozorro eta musikari auzoetan banatu ziren eskean ibiltzeko. Eskolako bisitaren ondotik, lanari ekin zioten. Ederki joan zen egun hau, baita biharamuna ere. Ortziralean herriko kaxkoko etxeak inguratu zituzten eta egun hauetan baserri eta herriko etxeetako harrera ezinhobea nabarmendu nahi izan dute Mozorroek.

Bertzalde, eskolako neska-mutikoak ere eskean ibili ziren, ikasbidararako dirua biltzen.

Ortziralean, bertso afaria eta emakume afaria batu ziren Aterpen, eta 120 bat afaltiar izan ziren bertan. Saltsa ederra jarri zuten Irazuk eta Maia eta 03:00 arte bertan egon ziren. Gorapean Mikel Salaberrirekin dantzaldia izan zen.

Larunbateko egitarauan berrikuntza bat aipa-



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEA

Inauteri ederrak izan dira aurtengoak ere, eta galdetu bertzela argazkian ageri direnei...

tzekoa da. Haur eta gurasoen mozorro besta eta Mozorroen herri kirol eta Zortziko saioaz gainera, batukada izan baitzen. Bestetan eraturako herriko batukada taldeak berriz karririk girotu zituen.

### ZOKKETA

Mozorroek banatutako errifan zokketa ere egin zen frontoian. Etxezarreta, Señorbaita eta Ander Agestari zarea, kafetera eta urdaizpikoa egokitu zitzaizkien. Aipatzekoa da, Mozorro Xuriek Zalkuteneko Piliri oroigarria ere eskaini zietela, inauteriak antolatzen lagun-

tzen baitie.

Goizeko ordu tikiak arte jende aunitz ibili ziren herrian. Giro ezin hobearrekin, oroitzapen politarekin izanen dira inauterizaleak. Bestarako gogoz, azken urteotan egingako Mozorro Bestaren prestaketan ari dira orain Mozorro Xuriak.

### Herriko langileak

Bertzealdi batez, Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dirulaguntza eskaera egin dio langabezian dauden herritarrek herriko lanetarako hartzeko. Mikel Altzuri eta Jon Azkarraga medikuarren etxean moldatzen ari

dira. Martxoan diruaren zenbatekoaren erantzuna jasoko du Udalak, eta horrela, langile kopurua eta lanaldiaren iraupena antolatuko ditu.

### ETB ikusteko sinadura bilketa

Nafarroan ETB ikusten segitzeko abian den sinadura bilketa hilaren 24ra arte egonen da zabalik. Herriko Etxeangoizetan ari dira sinadurak biltzen, baina goizez ezin dutenentzat, arratsalde batez atek irekiko dira. Otsailaren 23an, 17:00etatik 19:00etara sinatzeko aukera izanen da.

**zalain**  
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

# KATEA-BIKE

Tel:  
948 634 179

ARANTZA

ALBERGIA · JATETXEA

**ATERPE**  
ALBERGIA

**okane**

HARATEGIA / URDAITEGIA  
1984-1985-1986-1987-1988-1989-1990-1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010

Tel/Fax: 948 630 018  
Kanttonberri 12 • BERA

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Eguraldi txarrak ezin izan du inauteri giroa zapuztu

Karrozen desfilean hartu zuen atseden euriak

### Jaione OTXANDORENA

Joan dira aurtengo inauteriak ere. Ortziraleko gazteen gosariaren ondotik, inauterietan hasiera ematen dien suziriabota eta igande arratsertararte giro ezinhobea izan genuen herrian.

Haurrek ortziraleko larunbatean Ulibeltzak Elkartearen beren moztzerroekin gozatzeko eta dantzatzeko aukera izan zuten, berendu goxoz lagunduta. Emakumeek Ulibeltzak Elkartearen egiten den afarian marka egin zuten, 118 elkartu baitziren. Eta igande eguerdian, herritar guztiak

desio genuena gertatu zen. Asteburu guztian botatako euriak tartebat utzi zuen karrozen desfilea behar bezala egiteko. Horrela, 12:00etatik 14:00etara herritarrek aurreko hilabeteetan egindako karrozekin, itzuliz kanpo gozatu zuten, kuadrilla bakoitza egindako karrozaren pertsonaia sartuz eta antzetzuz. Dudik gabe, herritarrek hagitz gustuko izaten dituzten inauteriak eta aurtengoak pasatu berriak diren arren, Sanferminak bukatzean erran ohi den bezala, guttigo falta de hurrengo urteko inauterietarako!!

### ETB Nafarroan

Nafarroan ETB ikusteko aukera izango dugun edo ez beldur gara azken hilabeteetan eta



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Mozorroa bakoitzak berea, baina umorea eta giro ona guztietan.

gure eskubidea dela aldarrikatzeko eta honen ardura dutenak, nortzuk garen eta zenbat garen jakin dezaten, sinadura

bilketa egiten ari dira eskubidearen alde aldarrikatu nahi duen guztiak, udaletxera joan be-

harko du otsailaren 20a baino lehen. Bakoitzak bere Nortasun Agiria (NAN) eraman behako du.



osasuna  
kirola  
ongizatea  
dibertsioa

## Abonatu LESAKAra

### ABONATU BERRIA

%20ko DESKONTUA SARRERAKO MATRIKULAN  
HILABETE BATEKO KUOTAREN DESKONTUA  
(1. go urtean, urteko azkeneko kuota doan)

(Eskaintza honek 2010eko apirilaren 30a arte balio du)

Galdetu Kiroldegian dauden eskaintza guztien informazioa

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Tel: 948 637 400 | e-Posta: lesaka@urdisl.com














AISSIALDIA → OSPAKIZUNAK

## Bertze urte batez barrikotea antolatu du Kasino elkarteak otsailaren 27rako

Otsailaren 24a baino lehen eman behar da izena Titin

### TTIPI-TTAPA

Lanean hasi da Kasiko elkarteko Zuzendaritza Batzorde berria eta horren seinale, urtero egiten den barrikotea antolatu du otsailaren 27rako. Ohi bezala, sagardotegiko egun baten gisakoa izanen da, sagardo kupa eta guzti. Afariko menua ere sagardotegikoa izanen da: txistorra sagardo erara, bakailoa, txuleta, gazta, intxaurreak eta irasagar-gozokia, kafea eta kopa. 21:30ean hasiko da afaria.

### IZEN-EMATEA

Kasinok antolatzen duen ekitaldien artean, arrakastatsuenetakoa da barrikotea eta jende andana erakartzen duena. Horregatik komeni da azken egunera arte esperoan egon

beharrean, aitzinetik ematea izena. Izena emateko azken eguna otsailaren 24a, asteazkena, izanen da. Titin ostatuan dago zerrenda eta apuntatzerakoan 10 euroko fidantza utzi beharko da.

Gehieneko kopurua 70 lagunekoa izanen da, eta izen-emateko zerrendaren ordena segituko da horretarako. Ardoa eta menuan sartzen ez diren bertze osagarriak aparte ordaindu beharko dira.

### Erreka Elkarteko txirindularien jantziak

Aitzineko alean aipatu bezala, Erreka Kiroel Elkarteak txirindularientzako jantzi berriak atera ditu eta el-

kartetik adierazi dutenez, 25 bat lagunek eskatu dute ekipazio berria. Maillot motza (38 euro), kulota motza (45 euro), kulota luzea (51 euro), jaka termikoa (90 euro) eta eskularruak (13 euro) dira ekipazio berrian sartzen diren jantziak.



ARGAZKIA: BIDELAGUN ELKARTEA

### 3.000 kilo Haitira bidaltzeko

Haitin gertatu zen hondamendia dela-eta, laguntza kanpaina egin zuen urtarrean Bidelagun Elkarteak Malerrekan eta Baztan aldean. Malerrekako bilketa Donezteben egin zuen eta guztira 3.000 kilo bildu ziren. Ekimen hau Behar Bidasoa erakundearekin egin da, eta guztia batuta, larunbat honetan, otsailak 20, aterako da Bilboko portutik Haiti aldera. Argazkia Behar-Bidasoaren egoitzan ateratakoa da.

### Osasun Zentro berria

Nafarroako Gobernuak izendatu du dagoeneko Osasun Zentro berria egiteko proiektuaren arduraduna. Lanak hasiak dira, eta Migel San Migel alkateak adierazi duenez, hil honetan proiektuaren nondik norakoak azaltzera etortzekoak dira Gobernuak, udal ordezkariarekin eta Osasun Etxeko arduradunekin biltzeko. Hartara, euren ekarpenak egiteko aukera izanen dute.

Osasun Etxe berria egiteko gastu guztiak Gobernuaren gain joanen dira.

**Lizun**  
GAZTANDEGIA  
Etxeko Ardi Gazta  
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

**BELARRA JATETXEA**  
  
Ametza · DONEZTEBE · 948 450 30F · www.restaurantebelarra.com

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

## ITUREN

KIROLA → AIZKORA APUSTUA

# Igande honetan jokatuko dute aizkora apustua Arroxenek eta Bordazurik

Mindegia  
osaba-iloben  
kontra ariko  
dira  
Donezteben

**Arkaitz MINDEGIA**

Igande honetan, otsailak 21, Doneztebeko frontoian 12:00-etan Malerrekekako lau lagunek aizkora apustua jokatuko dute. Hilario eta Migeltxo Mindegia osaba-ilobak, Joseba Bordazuri eta Juanito Arroxeneren kontra ariko dira. Apustua hasiera batean abenduaren 27an egitekoa zen baina Josebak min hartu zuenez, igande honetara gibelera zuten.

Zortzi kanaerdiko ebaki beharko dituzte igandean. 3.000 jarri dituzte jokoa eta leku-

koa eta gordetzailea Ezkurrako Barranka Ostatuko Jose Luis Gorostiaga izanen da. One-nak irabaz dezala, baina herritarrak apusturen erdian izaki, animo Joseba eta Juanito!

**ETB ikusteko  
sinadura bilketa**

Nafarroan ETB ikusten segitu nahi dugula eskatuz sinadura bilketa bat egiten ari dira herriz herri, eta Iturengo Herriko Etxean ere egiten ahal izanen da. Horretarako azken eguna otsailaren 19a, ortzira, izanen da, 11:00etatik 14:00etara. Gogoan izan, datuak betetzera koan Nortasun Agirian bezala idatzi behar direla.

**Lapurrak bisitan**

Otsailaren 8tik 9ra-ko arratsean, lapurreta



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

**Hurrengo urterarte inauteriak**

Bertze urtebetez esperoan egon beharko dugu inauteriak ailegatzeko, aurtengoak joan baitzaizkigu. Baina umore ederrean pasatu dira eta ezin kexatu.

egin zuten Herriko Ostatuan. Dirudienez, erai-kinaren sarrerako ate-

tik sartu ziren atea bortxatuta. Barrenean ibili ondotik, telebista,

ordenagailua, dirua, edariak... ebatsi zituzten.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

KIROLA → APUSTUA LASTERKA

## Loitzateko atakara lasterka joateko apustua egin dute herriko lau gaztek

Martxoko lehenengo asteburuan jokatu dute desafioa

### Fermin ETXEKOLONEA

Apustu gosez dago herriko gazteria, azken bolada honetako joera ikusita, itxura hori baitu. Alde batetik, Azkatekobordako Mieltxo Mindegiak aizkora desafioa egin du bere osaba Hilarioekin, Iturenngo Arroxene eta Bordazuriren kontra. Hain zuzen, igande honetan, otsailak 21, jokatu dute Doneztebeko frontoian. 12:00etan egin dute hitzordua.

Baina ez da apustu bakarra. Herriko bertze lau gaztek ere desafioa bota baitiete elkarri, eta ez nolana hiko gainera. Baina kasu honetan lasterka ibiltzeko izanen da.

Palazioko Mikel eta Errandoneko Ibaik, Tomaseneko Igor eta Ikazpeko Patxiren kon-

tra eginen dute apustua. Bikoteka, herritik abiatuta Loitzateko ata-

kara joan beharko dute lasterka, eta bien artean ibilbidea denbora

guttienean osatzen duten bikotea izanen da irabazlea. Martxoko le-

hen astebururako egin dute hitzordua, baina lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zuten zein egunean eta zein ordutan izanen den.

Dudarik ez dago, gisa honetako apustuek saltsa sortzen dutela herrian, ongi hartuak baitira. Zorte on denei eta ea dena ongi ateratzen den.

### Ander Fuentes zuzenean finalurrekoetara

Agoitzen egin zen urtarrilaren 31n Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren final-laurdena eta Ander Fuentes Itturri izan zen nagusi, 380,5 punturakin. Garaipen horrek finalurrekorako txartela eman dio eta larunbat honetan, otsailak 20, Etxarri-Aranatzeko Kultur Etxean ariko da, 17:30ean hasita, Julio Soto, Estitxu Arozena, Xabier Terreros, Oskar Estanga eta Saioa Alkazarrekin batera. Zorte on!



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

### Giro ederrean inauteriak

Jendetsuak eta parte-hartze haundikoak izan dira inauteriak, eta ezin ukatu giro ederrean joan zirenik. Asteartea izaten da Zubietan egun handia, eta eguraldia lagun, oso ongi joan zen. Hurrengo urtekoen esperoan egon beharko duzu orain.

**Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa**

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Landare olio erabilaren kudeatzaile baimendua: EUD/034/004  
Hondakin arrakutsuen gasteorako kudeatzaile baimendua: EU2/13/05

**ERABILITAKO LANDARE OLIOAREN BILKETA**

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es

Zaindu zeure ingurumena!

# EZKURRA

**AZPIEGITURAK** → ERLOJU BERRIA LASTER MARTXAN

## Heldu den astean hasiko dira erloju berria paratzeko lanak

Otsailaren 5ean alkatea Iruñeko erlojugilearekin bildu zen

### Fernando ETXEBERRIA

Laster ikusiko dugu erloju berria, zaharren orde. Nafarroako Kutxaren bidez, 7.950 euro lortu ondotik, hildaren 5ean Iruñeko erlojugilea alkatearekin bildu zen, erloju zaharra noiz ordezkatu zehazteko. Bilera horren ondotik, lanak hurrengo astean hasiko direla jakinarazi da eta obra guztia otsaila akizterako egina egonen da.

Teknologia berriei esker, zuzen eta puntual funtzionatuko du. Horrekin batera, egunero goizean 08:00etan, eguerdian 12:00etan, ilunabarrean eta elizkizunak diren orduetan ezkilak jotzeko programatuko da.

### Lau ezkontza aurten

Joan den otsailaren 5ean ospatu zen udaltxean, Ezkurran aurten izanen diren ezkontzen artean lehenengoa. Oraingoz, lau ezkontza izanen dira urte honetan, eta horietatik bi zibiletz egingen dira eta bertze biak elizatik.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

### Jubilatuaren bazkaria

Otsailaren 7an Eratsungo 18 erretiratu bildu ziren Barranka ostatuan, hildako lagunaren omenez herrian meza entzun ondotik, Barranka ostatuan ederki bazkaltzeko. Eta gauza bera egin zuten Ezkurako erretiratuek otsailaren 14an. Argazkian Ezkurako jubilatuak ageri dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Txerri bodaren ohitura bizirik

Urteetan mantendu den ohitura izan da Eguberrien ondotik zerriak hiltzearena. Eta aurten ere halaxe izan da. Urtarrilaren 25ean, adibidez, Barranka ostatuko Jose Luisek bi ale eder hil zituen, bat 120 kilokoa. Garai batean bezala, emakumeak arduratu ziren odolaz, hesteez eta gibela prestatzeaz, gero zerri-hiltzaileak eta honen laguntzaileek dastatzeko, hori bai, aurretik albaiariari gibel eta mingain zatiak bidali ondotik. Gosaldutakoan, laguntzaileek zerria puskatu zuten txistorrak, urdaiazpikoak eta gainerakoak egiteko, eta 14:00 aldera bazkaldu egin zuten. Afaltzeko ordua bitarte kartetan aritu ziren, eta gero zenbait lan ere egin behar izan zituzten.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Ortziral goizeko puska biltzearekin hasiko dira inauteriak

Larunbat eguerdian mozorro desfilea izanen da eta ondotik bazkaria Kuku elkartean

### TTIPI-TTAPA | LEGASA

Urtero bezala, eta ohiturak mantenduz, aurtengo inauteri garaia iritsi zaigu. Batzuetan lehenago eta bertzeetan beranduago, baina herri guztietan besta berexi hau ospatzeko aukera izaten dugu.

Nahiz eta otsailaren 17a Hausterre Eguna izan, eta eskolako haurrek Ortzegun Gizena otsailaren 11n ospatu, Legasan otsailaren 19an eta 20an izanen dira inauteriak.

### ORTZIRALA, 19

Goizean, beheitiko karrikan puskak bilduko dira. Ondotik bazkaria egingen da Kuku elkartean. Arratsaldean, berriz ere, puskak bil-

tzeari ekinen zaio, baina aldi honetan, goitiko karrikan. Biltzen diren puskekin afaria egingen da berriz ere Kuku eta gero besta elkartean bertan.

### LARUNBATA, 20

12:00etan mozorroren desfilea egingen da herrian barna. Horretarako denak Kuku elkartetik aterako dira. 14:00etan bazkaria izanen da frontoian.

Ondotik, DJ Txemaren eskutik musika izanen da.

Hurrengo egunean, igandearekin, 16:00etan elkartu eta gazteen artean, frontoiko gauzak bilduko dira.

### OTORDUETAN IZEN-EMATEA

Ortziraleko afarira joan nahi duenak Kuku aurkituko du zerrenda; eta joan nahi duenak bartz euro ordaindu beharko ditu.

Larunbateko bazkaria apuntatzeko epea, berriz, otsailaren 14an akitzekoa zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Larunbateko mozorro desfilean gisa guztietako mozorroak ikusi dira azken urteotako inauterietan, eta aurten ere hala izatea espero da.

### Edukiontzi guztiak tokiz aldatuko dira

Otsailaren bukaeran,

herriko hondakinen edukiontzi guztiak tokiz aldatuko dira eta orain ez bezala, bi pun-

tutan soilik egonen dira: Zubi Zaharrean edo Uaketan kolokatuko dira.

ongi pasa inauteriki!

**Ardiarana, s.l.**  
QUESOS DE OVEJA

Ardi gaxta  
**KAMIKU**

Queso de oveja - Ardi gaxta  
**SUSOS ERTZIZORRITA**

LEGASA - T. 680 53 93 00

HER, D, I, B, O  
ETXEBE  
EDXNTECIX  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519  
Maixen eta Véronique

**SARA**

**larreta**  
IGELTSU PROIEKTATUA  
SUNBILA - BEIRA

Godia Arretxea 637.225.514 Juanen Seraldo 637.921.299

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
agardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

TIP: 945 645 474

# GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Larunbat honetako parrandak emanen die bukaera aurtengo karnabalei

Aurten bigarren aldiz bazkariarekin hasiko da festa

### Esteban AROTZENA

Astearteiñote ondorengo larunbata da azkeneko urte hauetan karnabaletako egunik indartsuena parrandazaleen kopuruari dagokionean behintzat.

Jakina den bezala, egun horretan ixten ditu kontuak Mozorroen Taldeak. Orainsu arte afariarekin batera egiten zuten hori, baina arratsa motz xamarra gelditzen zitzaielako, festa bazkariarekin hastea erabaki zuten Mozorroekiaz. Esperimendua gustatu zitzaenez, aurten ere horrelaxe egingen dute. Bazkalondoren, eta ordaindu beharrekoak ordaindutaokan, kalejira egingen

dute Mozorroek tabernaz taberna. Ez gainera edozein soinu-joleren erritmoan dantzatzuz, Solano eta Jon Mari trikitilari ospetsuen doinuekin baizik.

Herritar arruntez ere oroitu dira Mozorroak, eta aurten, krisiak krisi, dantzaldia antolatu dute plazan 20:00etan hasita, Bide batez taldearekin. Hortik aurrekoari buruz, ez dio deus programa ofizialak, baina igande eguerdi bitarteko bueltan izanen da zer ikusi eta zerekin gozatu.

Bukatzeko, bidezkoa da esatea, karnabal guzien antolakuntzaren ardura Mozorroen Taldeak hartu duela bere gain. Udalak, Umore Onak eta Gazte Asanbladak ematen diote dirulaguntzatxo musikak sortzen dituen gastuentzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

A ze argazkia 2010eko karnabalen kartela janzteko erabili dutena!



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Urrezko Ezteiak

Patziku eta Felixaren Urrezko Ezteien berria berandu xamar jaso dugu, baina hala ere, aipatu beharreko kontua da. 1959ko azaroaren 7an ezkondu ziren Lezón Txamoraberriko mutila eta Arantzako Urdingobordako neskatxa. Donostiako Arzakaren egin zuten eztei bazkaria. Beste argazkia Zarauzko Aitenetxekoa da, hantxe ospatu baitzuten Urrezko akontezimendua familia giro ederrean.



ARGAZKIA: J. J. ETXEBERRIA

### Gauzak argitze aldera...

Baserri askoren egoera kaxkarraz aritu ginenean aurreko alean, Txakurtxoren irudi hau zen erakutsi nahi genuena.

Martiko  
Pol. Zorain, s/n.  
31790 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
*Hosteluetan adituak eta entzuz*

**MARTIKO**

**DENDA**  
ORDUTEGIA  
ASTELEHNIETIK  
ORTZIALERA

8.30etik  
12.30era

14.30etik  
17.00etara

Martikorekin  
zu zeu  
sukaldari.

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizalua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa  
20304 IRUIN  
Tel. 943 623 130

**BILERA** → DEIALDIA

## Urteko bilera egingo dute San Roke elkarteko bazkideek otsailaren 27an

Justifikatu  
gabe bilerara  
joaten ez  
denari kobratu  
eginen zaio

### Kontxi eta Maider

Otsailaren 27rako deitu zaie San Roke elkarteko bazkideei urteroko bilera egiteko. 19:30ean izango da lehen deialdia eta 20:00-etan bigarrena eta honako gai hauek landuko dira: aurreko akta irakurri eta onartuko da batetik; 2009ko balantzea ere onartuko da eta al-

di berean, 2010eko kuotak zehaztuko dira; bazkideei buruzko baja eta altei buruz ere hitz egingo da, baita zuzendaritzaren inguruan ere. Bestelako galderak egiteko aukera ere izango da.

### **HUTSEGITEA JUSTIFIKATU BEHARRA**

Kontutan izatekoa da bilerara azaltzen ez den guztiari, «justifikatu ezean», urteko kuotarekin batera, 30 euro gehiago kobratuko zaizkiola. Beraz, adi egotea komeni da. Bilera ostean, afaria prest egongo da gelditu nahi duen guztiarentzat.



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

### **Giro ederrean aurtengo karnabalak ere**

Aurtengo karnabalak ere pasatu dira eta ezin uka eguraldiak ilundutako ospakizuna izan zenik. Aranoko puxka biltzea aspaldian koloka xamar dagoen ospakizuna da eta aurtengo eguraldiak atzeratuta jende gutxi ibili gara baserriz baseri umorea zabalitzen. Hala ere, herritarren harrera beste behin eskertzeko modukoa izan da eta hemendik eskerrik beroenak beraien etxeetako ateak zabaldu dizkiguten guztiei. Arratsaldean, zai-dantza beti bezala egin zen, nahiz eta euripean ibili behar izan. Jendea ere arrimatu zen urteroko festa hau ikustera, Bilboko mutil batek guztia kamaraz grabatu zuen Dantzarien kontseiluan bilduta gera dadin Aranoko dantza hau. Gauean giro ederrean afaldu eta amaitu genuen eguna Tapia eta Leturiaren doinuekin dantzatuz.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea



**Otsaila. Merkealdiak. Aste txuria.**

Tafalla, 13 • IRUÑEA

948 230 634

edredoi fundak  
albomozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak





GIZARTEA → EMAKUMEAK LANEAN

## Pakita Arregi eta Casilda Irazusta, omenaldia merezi duten bi emakume

Ohorezko euskaltzaina da bat eta azken errotaria bestea

**Juana Mari SAIZAR**

Martxoaren 8an, emakumelangilearen nazioarteko eguna dugu. Gu aurreratu egin gara eta bi emakume langile-ri buruz hitz egingo dugu: Pakita Arregi eta Casilda Irazusta. Bai batak eta bai besteak, lana izan dute bizitzan oinarri gisa, nahiz eta biek ezberdin landu.

**ANOSENEKO PAKITA**

Pakitari dagokionez, ikasteten arloan aritu da eta bere lanen fruitu gi-

sa zerrenda luzea osatu du: Soziologia eta Politika Zientzietan Dokto-rea da; Euskal Herriko Unibertsitatean katedra-duna izan zen erretiroa hartu arte, Euskal Hizkuntza eta Hezkun-tzaren Soziologia irakas-ten zituen; 1964ean sor-tu zen Joannes Etche-berry Andereño Eskolan, ikastegiaren zuzendari izan zen. Bertako ikas-leentzako euskarako le-hengo gaitasun-pro-ben antolaketa berak egin zuen, baita Ikasto-letan lanean ari ziren eta Irakasleen Eskolan sar-tzeko titulua behar zu-ten andereño gaientzat Batxilergoko Ikastaroen antolaketa ere; EHUren Ohorezko irakaslea izan



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Pakita Arregi eta Casilda Irazusta

zen 2005ean eta EIRE, Euskal Irakasleen Elkar-tearen irakasle emeritu izendatu zuten 2007an.

2008an, berriz, klan-destinitatean lan egin zu-ten andereñoei emanda-ko Sabino Arana saria hartu zuen. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldun-diaren saria ere jaso zu- en, 60. hamarkadako an- dereñoei zuzendua.

Irakaskuntzan ez ezik, ikerketan ere ibili da, eta lan ugari argitaratu ditu lanaren eta hezkuntza- ren soziologia eta eus- kararen alfabetatze ar- loetan. Eta hori dena gu- txi baliitz ohorezko eus- kaltzain berri izendatu du Euskaltzaindiak.

**SUTEGIKO CASILDA**

Casilda, berriz, Aresoko

azken errotaria dugu. 94 urterekin herriko pertso- na adinduena da eta 1985 arte, errota betiko itxi zen arte, bertan la- nean aritu zen, oso gazte alargun gelditu baitzen eta bi alaba hazi behar izan baitzituen.

Bi emakumeek elka- rrekin dutena lanaren ba- lorea da, biei hori eraku- tsi baitzieten txikitatik.



**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETRE



**FLOTAZIOA**  
etorri probatzera!

**berdinak gara, desberdinak gara  
ura gara, osasuna gara**

Eskaintza bereziak Malerreka, Baztan, Bortziri  
eta Bertizaranan bizi direnentzat

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga [Nafarroa] Tel. 948 45 60 45 - [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)

## BAZTAN

HEZKUNTZA → AZPIEGITURAK

# Iruritan eskola berria egiteko 900.000 euro emanen ditu Gobernuak

Zalantza batzuk gelditu zaizkio Guraso Elkarteari

## TIPI-TTAPA

Ibili eta buelta, egin dako ahaleginek badirudi erantzuna ekarri dutela. Nafarroako Gobernuak 900.000 euroko inbertsioa iragarri du Iruritan eskola berria eraikitzeko. Otsailaren 1ean jakinarazi zuen erabakia, eta 2011ko lehen sei hilabeteetan lanak akituak egotea espero du. Prozesua azkartzeko, proiektua idatzi, zuzendu eta lanak eginen dituen aldi berean kontratatuko da.

Aurkezten diren proiektuek ezaugarri hauek

### ZALANTZA

«Ez dakigu diru hori nahikoa izanen den behar guztiak asetzeko. Proiektua oraindik ez baitago egina»

### Idoia ESKUDERO

Iruritako Guraso Elkartea

eduki beharko dituzte: 45 m<sup>2</sup>ko sei ikasgela eta 30 m<sup>2</sup>ko bertze gela bat; 45 m<sup>2</sup>ko informatika gela eta erabilera anitzeko 100 m<sup>2</sup>ko aretoa. Aldi berean, bi komun izan beharko ditu, horietako bat 30 m<sup>2</sup>koa ikasleentzat eta bertzea 5 m<sup>2</sup>koa irakasleentzat; 2 m<sup>2</sup>ko garbiketagela; instalazioetan 15 m<sup>2</sup>koa ere bai; irakasleentzako 30 m<sup>2</sup>koa izanen da; zuzendaritza-gela 20 m<sup>2</sup>koa; biltegia 20 m<sup>2</sup>koa eta portxea 50 m<sup>2</sup>koa.

Aipatu 900.000 euro horiek 2010 eta 2011ko aurrekontuetatik bideratuko dira, 450.000 urte bakoitzeko.

### GURASO ELKARTEA: «SENTSAZIO GAZI-GOZOAREKIN»

2010 aurrekontuak onartu zirenerako -2009ko abenduaren 23an- Iruritako Guraso Elkartea bazekien euren eskola berria eraikitzeko dirua bazegoela. «Momentu hartan poz handia hartu genuen, gure ahalegin guztiak baliagarriak izan zirelako eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hainbat izan dira Iruritako Guraso Elkartek azken hilabeteotan egindako protestak. Argazkian eskola aitzinean azaroaren 19an egindako prentsaurrekoa ageri da.

denen artean eskola berriko dirulaguntza lortu genuelako». Horrela azaldu digu Idoia Eskudero Iruritako Guraso Elkartearen izenean.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza zenbatekoa izanen den iragarri duen honetan, ordea, zalantza sortu zaie: «ez dakigu diru hori nahikoa izanen den gure behar guztiak asetzeko. Proiektua oraindik ez baitago egina».

Eskola berria 2010-2011 ikasturterako nahi dute Iruritan, baina zaila ikusten dute. Gobernuak 2011ko lehenbiziko sei hilabeteetan eraikia egon dela erran du, eta beraz, «luzatzen bada, 2011ko ekainean akitu daiteke, eta ikasturte guztia eskola zaharrean pasa beharko genuke», dio Eskudero. «Hala baltz ere, Nafarroako Gobernuak epeak betetzen ariko litzateke», proiektua 2012 Planaren barrenean dagoelako.

### GELAK ESKAS

Gobernuak iragarri ditu-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Santa Ageda Almandozen

Amandozko 21 ikasle eta hiru irakasleek ere San Ageda eguna ospatu zuten. Baserriar arropak jantzi, makilak hartu eta herriko karriketan barna ibili ziren kantuan, eta herritarrek eskertzeko fruitu idor eta goxokiak eman zizkieten.

en gela kopuruak ere kezka sortu die: «zazpi ikasgela behar ditugu, eta oraingoz sei eskaini dizkigute». Horrekin batera, jangelarik gabegelditzearen «beldur» dira. Gaur egun, eskolatik kanpoko lokal batean ematen diete haurrei jatera, baina «lokal hori eskola berria eraikiko den tokitik urruti geldituko litzateke». Guraso Elkarteko kideak azaldu digunez, «Udalaren bidez, jateko eta gu- rasoez bilerak egiteko gela egokitzeko eskatu dugu, baina oraingoz ez dugu erantzunik jaso». Hezkuntza Departamentuak eskola kontzentrazioetan baino ez ditu onartzen eskoletako jantokiak, eta Iruritaren kasua ez da hori.

Hortaz, «sentsazio gazi-gozoarekin» gelditu direla nabarmendu digu Eskudero, «eta denborarekin animatu edo desanimatu egingen gara».

**Eskisaroi**  
JATEKIA

Jaime Urrutia  
Tfn: 948 580 013  
ELIZONDO

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Burriatz auzoa · Tfn: 948 592 043  
ORNOZ · MUGAURI

**Gure Horagia**  
Nuestra Carne

HONDAMENDIA HAITIN → LAGUNTZA

# 7.500 kilo bildu ditu Bidelagun elkarteak Haitira bidaltzeko

4.500 kilo Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztanen

**Maite OTEIZA**

Haitiko lurrikararen berria ezagutu bezain fite, munduko txoko guztietatik elkartasuna eta laguntza adierazteko eta eskaintzeko, hainbertze kanpaina abian paratu ziren. Kanpaina guzti horien artean, Bidelagunek Behar Bidasoarekin batean, berea ere martxan jarri zuen elikagaiak, maindire eta mantak eta abar biltzeko.

Eskualdean erantzuna arras ona izan da, Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztanen, 4.500 kilo eta Malerrekan 3.000 kilo bildu, ohatzeko arropak aparte.

Bidelagun elkarteak, laguntza eman duten guztiei, ziurtatu nahi izan die, laguntza guztiak Hai-

tirat ailegatuko direla. Zumarragako Mercedaria Ahizpen bidez. Hauek Santo Domingon duten egoitzarat zuzenean igorriko baita. Larunbat honetan, hilak 20, aterako da lehenbiziko edukiontzia, Bilboko portutik.

**BETI BEHAR DA LAGUNTZA**

Bidelagunek oraingo laguntza ez dela momentuko beharra ere aldarrikatu du, aspalditik baitago Haiti herri pobreen artean, eta aitzinerat begiraturaz, laguntza hau beharrezkoa izanen dela iritzi dio, bertze hainbertze herritan bezala.

Bertzalde, Bidelagunek laguntza eman dutenei eskerrak eman nahi izan dizkie, bai baliabideak utzi dituztenak edo elikagaiak eta ohatzeko arropa eman dutenak, bildutakoan sailkatu eta paketetan biltzen egon diren direnak, eskolak...



UTZITAKO ARGAZKIA

**Euskal preso en alde gose greba**

«Euskal preso en eskubide urraketak salatze en eta amnistiaren eta autodeterminazioaren bidean, euren eskubideak errespetatu eta estatus politikoak aldarrikatzeko», Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hainbat ekimen paratu ditu martxan urte osorako, eta tartean urtarileko azken astean gose greba egin zuen. Baztanen ere, ekimen horrekin bat egin, eta urtarilaren 29, 30 eta 31n baraualdia egin zen udaletxean. Halere, salatu dutenez, «hiru egunetan Guardia Zibilaren presentzia izugarria izan zen, kanporatuak izanen zirenaren mehatxupean». Gisa berean, kritikatu dutenez, «larunbatetik iganderako arratsen balkoian zegoen pankarta desagertu egin zen».

**Aroztegia proiektuaren inguruan hitzaldia**

*Golfa eta egitasm urbanistiko-espekulatuzaileak* izenburupean hitzaldia antolatu du Aroztegia... Eta Gero zer?! plataformak otsailaren 21erako. 18:00-etan izanen da Lekarozko lehenagoko eskolan.

Arabako Errioxako herritar batek eskainiko du solasaldia eta bertzeak bertze, turismoa-

ren eragin en inguruan, golfa eta haren eraginez eta Arabako Errioxan golfaren inguruan izan diren «eskandalu espekulatuzaileei» buruz ariko da.

**Euskaraz lan egiten dutenentzako dirulaguntza**

Urtarrilaren 25eko bilkuran onartu zituen Udalak euskararen normalizazioan ari diren entzako 2009ko dirulagun-

tzak. Hala, Xorroxin Irratiak eta Xaloea Telebistak bakoitzak 6.215,24 euro hartuko dituzte; TTIPI-TTAPAK 4.808,02 euro jasoko ditu; AEK euskaltegiarentzat 4.690,75 euro onartu ditu; Etxetik Plaza aldizkariarentzako 1.284,41 euro; Nafarroa Oinezek eta Herri Urratsek bakoitzak 330,02 euro hartuko dituzte eta Euskal Kantu Txapelketarentzat 600 euro bideratuko ditu Udalak.

**BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak**

LARRALDEA LINDURRENBORDA

**LARRALDEA eta LINDURRENBORDA**

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA: Telleria auzoa • LEKAROZ 948 402721 • 026 404317

LINDURRENBORDA: Najar auzoa • LESAKA 948 632712

**LES LEKAROZ ELIZONDO B.H.L.**  
Diputazio Etorbidea, s/g • 31700 ELIZONDO (Baztan)

**ORAIN 2 URTEKO ZIKLOA**

**Kudeaketa Administratiboa**  
Erdi Mailako Zikloa

**ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!**

**NORENDAKO:** Autonomia, merkatar, langabele, lantzetako nabe, osasuneko eta interesu lan dituzten enbentzetat


**AURREINSKRIPZIOA:** Martxoaren 2tik 9ra

948 58 18 05 • 948 58 18 40  
les.elizondotx@educacion.nafarroa.es



RepsolGas-ek gas propanoaren zerbitzua eskaintzen du Baztanen. Argazkietan Arizkun, Elizondo eta Iruritako instalazioetako batzuk.

# RepsolGas-ekin kontratua dutenek berdin-berdin segituko dute zerbitzua hartzen inongo gastu gehigarririk gabe



■ Gai honen inguruan RepsolGas-ek bere hartzaille guztiei lasai egon daitezkeela adierazi nahi die ■ Horretaz gain, propano kanalizatuaren gas-hornidura etengabea, garbia eta mugagabea izanen dutela ziurtatzen die

## GAS BANATZAILEAK

Azkeneko hilabeteotan zabaldu den informazioaren arabera pentsa daiteke RepsolGas eta Gas Naturalaren arteko akordio bat egon daitekeela (ez dago akordiorik), RepsolGas-en gas sarearen hodiak Gas Natural enpresak erabil ditzan eta, gainera, gure bezeroak behartuak egonen direla Gas Naturalarekin kontratua egitera. Honi buruz **RepsolGas-ek argitu nahi du** ez dagoela gisa horretako akordiorik eta **Gas Natural gure herrietara etortzeak**

**ez dituela Repsolen bezeroak behartzen Gas Natural enpresarekin kontratua egitera.** Dauden aukeren artean, beti bezero-

**Gas Natural etortzeak ez du behartzen Repsolen bezeroa Gas Naturalekin kontratua egitera**

aren esku dago erabakitzea nork egingen dion gas horniketa. RepsolGas-en bezero batzuk aldatzea erabakiko balute, Repsolekin gelditzen diren bezeroek orain arte bezela segituko lukete, berdin-berdin, hornidura etengabea eta inongo gastu gehigarririk gabe.

## GAS BANAKETAREN BEREZITASUNAK

Gas propanoa edo gas naturala banatzeko manerak kasik berdinak dira eta bien



arteko diferentziak txikiak dira arras. Bi kasuetan gasa lurpetik datozen hodian bitartez banatzen da. Etxe bakoitzak bere hartunea du eta hodia etxeak duen gasaren kontadoreraino iristen da. Gero, kontadoretik norbere etxeraino luzatzen da instalazioa.

Banaketari dagokionez, generalean, gas propanoa gasontzi handi batzuetan (ikus argazkiak) egoten da eta, gero, hodian bitartez banatzen da etxeetara. Gas naturalaren kasuan, presio altuan dator herri batzuetara hodi handi batzuen bitartez. Eta presioa jaitsi ondotik etxez etxeko banaketa egiten da. Beraz, banatze sistema berdintsua dela erran daiteke.

### PREZIOAN BERTINTSU

Gas propano eta gas naturalaren salneurriak Espainiako Gobernuak finkatzen ditu. Batzuetan bata bestea baino merkeago egoten da baina, gero, alderantziz ere gertatzen da. Dena den, urte osoko batez bestekoa kontuan hartzen bada, biak oso

paretsu ibiltzen dira. **2009an gas naturalaren batez bestekoa 0,043€ kw/h izan zen eta gas propanoarena 0,049€ kw/h.**

### SEGURTASUNA

Segurtasun neurriak gero eta handiagoak dira, arauak gero eta zorrotzagoak eta

gas-isuriak sumatu eta eteteko sistemak gero eta fidagarriagoak. Bi kasuetan instalazioak gas-instaladore baimendu baten bitartez eginez gero, instalazioei tokatzen zaizkien errebisio guztiak eginez gero eta instalazioak eta aparatuak ondo erabiliz gero, ez da izaten segurtasun arazorik.

## Gas propanoaren abantailak

Etxea berotzeko konponbide egokia eskaintzen du **RepsolGasek**

<b>Ekonomikoa</b>	<b>Aldakorra den bertze edozein (elektrizitate) baino merkeagoa.</b> Horrez gain, bere eraginkortasun handiari esker, kalitate prezio interesgarria segurtatzen du.
<b>Garbia</b>	<b>Arras garbia.</b> Ingurumena babesten du eta etxetresnek gehiago irauten dute.
<b>Praktikoa</b>	<b>Gas propanoarekin honako hau lortuko duzu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ur beroa</b> momentuan, etenik gabe eta nahi duzun tenperaturan; galdarak bakarrik iturria irekitzerakoan kontsumitzen duenez gasa, energia aurreztuko duzu.</li> <li>- <b>Berogailua</b>, minutu guttitan giro atsegina egokitzen du, aukeratutako tenperatura zehaztasun osoz erregulatuz.</li> <li>- <b>Erregulazio zehatzeko sukaldea</b>, osagai bakoitza dagokion tenperaturan prestatu dezakezu, energia barra-barra gastatu gabe.</li> <li>- <b>Eta bertze hainbertze aplikazio:</b> bitrozeramikak, garbigailuak, lehorgailuak, ontzi-garbigailuak eta abar.</li> </ul>
<b>Azkarra eta erosoa</b>	<b>Hornikuntza etengabea</b> , azkar pizten dena, erregulazio zehatzekoa, eta erraza instalatzeko eta mantentze-lanetatarako.

**Informazio komertziala:**  
**Repsol Gas Nafarroa 948 24 96 16**

## Gas propanoaren kutsadura tasa

Energia	Teknologia	Errendimendua (%)	Emisio faktoreak (g/KWh) errekurtsuaren iturburu naturaletik hasi eta azken erabilera bitarte				
			CO <sub>2</sub>	NO <sub>x</sub>	COV	CO	PS
Gas Naturala	Galdara arrunta	90	252	0,32	0,05	0,05	0,08
GLP (=Propano)	Galdara arrunta	90	291	0,27	0,05	0,05	0,009

**CO<sub>2</sub>** (Karbono dioxidoa): Negutegi Efektua deitzen denaren eragilea  
**NO<sub>x</sub>** (Nitrogeno Oxidoa): Euri azidoen eta hirietako lainoren eragilea  
**COV** (Konposatu organiko bolatila): Minbizia eragiten duten konposatuak  
**CO** (Karbono monoxidoa): Konposatu toxikoa  
**PS** (Partikula solidoak): Hirietako lainoen eragilea



# BAZTAN

KULTURA → KANTUGINTZA

## Bere lehenbiziko emanaldia eskaini du Baztango Koru ttikiak

Baztango haurrak parte hartzera animatu dituzte

### Maite OTEIZA

Ahots berriez hornitzeko asmoz, Baztango Koru ttikia sortu du Elizondoko Abesbatzak. Baztango 6-14 urte bitarteko haurrek osatua da abesbatza ttikia (Ornoz, Gartzain, Irurita, Berroeta, Elizondo...) etagan den buruilean eman zioten euren ibilbideari hasiera, Maki eta Cristina Urtasunen zuzendaritzapean.

Abesbatza ttiki honen asmoa aspaldikoa da, eta denbora luzez, bertako zenbait partaidek, Nafarroan eta Nafarroatik kanpo, hainbertze ikastaroetan parte hartu dute, ahotsa lantzeko, halanola. Helburua haurrak ongi pasatzea, musikarekiko harremana

sortzea eta aldi berean, Elizondoko Abesbatzako harrobia sortzea da, azken finean, jende heldua erakartzea zaila baita.

Ortzegunero, 17:30-ean Arizkunenea Kultur Etxean egiten dituzte entsaioak. 30 haur inguru biltzen dira, baina antolatzaileen erranetan, nahi duen guztiarendako ateak irekiak daude, eta Baztango haurrak parte hartzera animatu dituzte.

### LEHEN EMANALDIA

Joan den ilbeltzaren 31n, bere lehenbiziko emanaldia eskaini zuten Iruritako Damaso Zabala Gizarte Bilgunean. Eta arrakasta haundia izan zuen, aretoa gainezka egon baitzen, kontzertuan irauten zuen ordu erdian. *Maritxu nora zoaz, Urmaelean eta Wybehla briza belicka* kantuak eskaini zituzten, bertzeen artean. Pianoan Cesar Vallejo, akordeoiarekin



UTZITAKO ARGAZKIA

### Anbulantziak gidatzeko ikastaroa UGTk antolatuta

Nafarroako UGTko Garraio Federazioak Anbulantzietan muturreko egoeratan gidatzea hobetzeko ikastaroa egin zuen otsailaren 4, 5 eta 6an Baztan-Bidasoan. Espainiako Sustapen Ministerioa finantzatuta egin zen eta Lesakan, Donezteben eta Leitzan ari diren Ambulancias Baztan-Bidasoako enpresako 17 langilek hartu zuten parte. Ikastaroaren alde teorikoa UGTk Beran duen egoitzan egin zen eta alde praktikoa Elizondon.

Leire Telletxea, eta txirula eta klabearekin Xabier Urtasun aritu ziren.

### Txileko presidentea zoriondu izana salatu du Ezker Abertzaleak

Udalak Sebastian Piñeira Txileko presidente berriari babesa eman izana salatu du Baztango Ezker Abertzaleak ohar bidez. Amaren aldetik Baztanen erroak dituen da Piñeira eta Udalak, NaBairen ekimenez eta UPNren babesarekin, zorionak eman dizkio.

Ezker Abertzaleak kritikatu duenez, «Piñeira multimilioduna eta eskuindarra da, Pinoxteten diktadura aldian aberastu zena, eta hortan, zerikusia izanen du seguraski bere anaia Jose Pinoxteten gobernuan ministro aritu izana». Hauteskundeotan Pinochet-zaleen babesa hartu zuela ere nabarmendu du Ezker Abertzaleak.

«Piñeiraren lana Txileko herriaren alde izanen dela erraten da Udalaren idatzian, eta horrekin ez dugu inolaz ere bat egiten», dio oha-

rrak, «Piñeirak ordezkatzeten dituen klase interesak Txileko oligarkiarenak baitira, eta bere programa politikoa langile-riaren eta herriko sektoreen kontrakoa da». Bide honetan, Maputxe herriak jasaten duen «zanpaketa» indartu egiten dela ere iritzi dio Ezker Abertzaleak.

Udalaren erabakia- ren harira, «NaBaik duen noraez ideologiko eta politikoa agerian» utzi nahi dutela adierazi du te oharrean, eta Txilen baztandar jatorria duten langile eta herritar aruntak agurtu dituzte.

<p>Okindegia</p> <p>Jatetxea</p> <h1 style="font-size: 2em;">Uxoa</h1> 	
<p>OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata</p> <p>JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)</p> <p>Espezialitatea parrillan erretako jakietan</p> <p>Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!</p>	<p>Ordoki Industrialdea</p> <p>Tfnua: 948 453 403</p> <p>31713 ARIZKUN</p>

 <p>ANTXITONEA</p> <p>Trinketea</p>	
	<p>Jatetxea - Ostataua</p> <p>Hotela - Trinketea</p> <p>Menu Bereziak</p> <p>Braulio Iriarte karrika</p> <p>ELIZONDO</p> <p>Tel: 948 581 807 - 948 581 853</p>

*Etorkizuna sor dezagun*



**HOBKI BIZITZEN LAGUNTZEN DIZUN ENERGIA**

Urte berri honetan, Kanalizatutako Gas Propanoa zure herrira eramateko lan egiten jarraituko dugu Repsol-en. Zure etxeko ongizatea hobetzeko etenik gabeko energia eroso, azkar eta ekonomikoa. Kontrata ezazu sukalderako gasaz, berogailuaz eta ur beroaz nahi duzunean gozatzeko. Etxean hobeki sentitzeko berokuntza sistema.

Informazio gehiago **901 100 125** telefonora deituz edo **repsol.com** orrian

**REPSOLGAS**

Repsol-en kanalizatutako gas sareak geografikoki mugatuta dago.  
Repsol-en gas sarearen barne dauden herriak kontsulta itzazu.



## BAZTAN

AZPIEGITURAK → KOMISARIA

# Erabetan eginen da Foru Poliziaren komisaria berria

Gobernuak onartu egin du Udalak proposatutako lurzatia

### TTIPI-TTAPA

Baztanberri plazan komisaria egiteko proiektua alde batera utzi, eta azkenean, Erabetan egitea erabaki da. Horko lurzati bat proposatu baitio Udalak Nafarroako Gober-

nuari, eta honek otsailaren 8an eman zion baiezkua. Iragarri bezala, Udalak dohainik utziko dio eremu hori Gobernuari, honek komisaria berria egin dezan. Milioi bat euroko gastua aurreikusi dute eta obra guztia Gobernuaren gain joanen da.

Proiektua lizitazio fasean dago momentu honetan, eta komisaria eraikitzeke gehiezin 12 hilabeteko epea egonen da. Behin la-



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Irudian gorri ageri den zati hori proposatu du Udalak Foru Poliziaren komisaria berria egiteko, eta Nafarroako Gobernuak onartu egin du.

nak akituta, eraikin berriaren kokatuko dira foruzainak eta euren ibilgailu eta gainerako materialak.

2006ko abenduan erabaki zen komisaria berria egitea, eta geroztik Santiago Karrikan eduki dute foruzai-

nek egoitza. Joan den urteko apirillean, ordea, komisaria berria Baztanberri egitea erabaki zen, baina auzotarren eta herritarren artean kontrako jarre- ra nagusitu zen. Manifestazioa ere egin zen erabakiaren kontra.

Hainbat arrazoi zituela erranez, Udalak baztertu egin zuen Baztanberriko proiektua eta orain, Erabeteko lur eremu bat proposatu du. Nafarroako Gobernuak, bere alde- tik, onartu egin du toki berria.

## BAZTAN

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

# Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa jokatu da otsailaren 27an Iruritan

Sei bertsolari ariko dira lehian, tartean, Iñaki Aleman herritarra

## TTIPI-TTAPA

Azken-laurdenak akituta, aste hondar honetan sartuko da finalaurrekoetan Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Etxarri-Aranatzen jokatu da lehenbizikoa, larunbat honetan Kultur Etxean, eta Julio Soto, Estitxu Arozena lesakarra, Ander Fuentes *Itturri* zubietarra, Xabier Terreros lesakarra, Oskar Estanga eta Saioa Alkaiza ariko dira lehian, 17:30ean hasita.

Otsailaren 27an bigarren finalaurrekoa jokatu da eta hau Iru-



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Otsailaren 6an Garesen jokatu zen lehen faseko azken saioa, eta hiru urtez Nafarroako Bertsolari Txapelketatik kanpo izan den Estitxu Arozena lesakarra nagusitu zen, alde handia atera zion, gainera, Eneko Lazkoz bigarren sailkatuari. Argazkian, ezkerretik hasita, Alazne Untxalo iturendarra –bertsotan–, Xabier Terreros lesakarra, loar Tainta lesakarra, Estitxu Arozena Lesakarra, Jon Elizetxe gartzaindarra eta Eneko Lazkoz etxarriara.

ritako Gizarte Bilgunean egingen da. Iñigo Olaetxea lesakarra, Xabier Legarreta aranoarra, Julen Zelaieta be-

ratarra, Iñaki Aleman iruritarra, Iñigo Ibarra eta Migel Mari Eloseggi *Luze* leitzarraren txanda izanen da. Saio hau ere

17:30ean hasiko da. Hirugarren eta azken finalaurrekoa Atarrabian jokatu da martxoaren 7an Indurain Anaiak ki-

roldegian, 17:30etik aitzinera. Bertsotan ariko direnak Jon Barberena elizondarra, Arkaitz Goikoetxea, Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Jon Elizetxe gartzaindarra eta Aimar Karrika izanen dira.

## 18 BERTSOLARI FINALAURREKOETAN

Azken-laurden bakoitze irabazleak –Goikoetxea, Legarreta, *Itturri* eta Arozena– eta puntuaziorik onena lortu duten 11 bertsolariak –tartean, Zelaieta, Aleman, *Luze* eta Elizetxe– dira finalaurrekoetara pasatu direnak, eta Soto, Olaetxea eta Barberena, berriz, zuzenean sailkatu dira aitzineko urteko txapelketan lortutako emaitzen ondorioz.

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxa: 631 587  
Itzango errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinsakoak, leihoak, atak, arkuak, pilareak, tximiniak, entzuzak, moldurak, zokaloak, hilariak, marrazkiak

**I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.**  
Diputazio Etorbidea, z/g • 31700 ELIZONDO (Baztan)

**Administrazioa eta finantzak**  
Goi Mailako Zikloa

**ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!**

**NORENDAKO:** Adarrena, portatzen, laguntza, zerbitzuak  
Berezikiak eta informazio gehiago eskatu

**AURREINSKRIPZIOA:**  
Martxoaren 21tik 9ra

948 58 18 05 • 948 58 18 40  
ies.elizondor@educacion.navarra.es

aroztegia 1890az geroztik

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK  
ATAKAK HESIAK  
LANGAK BALKOIAK

**Arotxa**

Miguel Azcárraga  
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita  
Tel. 948 581 418 / 650 532 073

marotxa@terra.es





Loreak eta landareak





# Prestatu lorategia

Lorategiak, balkoiak eta barnealdeak berpiztu egiten dira udaberrian. Hortaz, garai egokia da lan batzuk egiten hasteko: belarra zaindu, zuhaixka-hesiak eta arbolak kimatu, ongarririk bota, txertoak egin...

## Lorategiko zainketa orokorrak

Martxo hilabete ezin hobea da neguan atera diren belar txarrak kentzeko. Bertzalde, izotzik egiten ez duenean, hosto iraunkorreko eta erorkorreko landareak landa daitezke. Hori bai, lurrik ez du bustiegia egon behar. Udaberria goiztiarra bada, udako bulboak eta tuberkuluak landatzeko garaia da.

## Soropilaren zainketa

Temperaturak epeltzean (15-18 gradu), feltro-geruza eskuare batez aska daiteke. Horrela, belarrak leku gehiago izanen du hazteko. Zainak hobeki garatzen dira, iraultzen denean lurra aireztatzen delako.

## Kimatze-lanak

Martxoaren erdialdean eta amaieran has zaitezke kimatze-lanak egiten. Arrosen kasuan, justu txertaketa-tokiaren gainetik moztu behar dira eta kimu berriak atera baino lehen; horrela, oparoagoa izanen da loraldia.

Zuhaixkak 45 cm.ko altueraraino utz daitezke. Igokariaren adar nagusiak ez dira inausi behar, bai ordea, bosgarren mentutik gorako aldeetakoak.



Igande eta astelehenak 9:00 - 14:00  
Asteartetik larunbatera 9:00 - 20:00  
Jaizubia Auzoa, 40 • HONDARRIBIA  
Tfnua: 943 641 710 • www.endanea.com

Zatoz eta pasa momentu eder bat lore eta zuhaitzen artean

## ENDANEA MINTEGIA, INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

- Fruta-arbolak eta larrosak aldatzeko sasoia
- Larrosak: 40 kolore, estilo eta usain ezberdinetakoak
- Fruta-arbola txertatuak. 60 klase ezberdin (zain hutsean, tiestoetan)
- Sagarrak (jatekoak sagardokoak), udareak, gereziak, muxikak, brinoiak, kiwiak...
- Fruta-arbolak neguan zaintzeko, xomorroen aurkako produktuak

**2x1**  
**FRUTA-ARBOLETAN**  
2 hartu eta 1 pagatu  
Zain hutseko landareak (Raiz Desnuda)

**PRIMULAK**  
lehen 1,20€ orain 0,99€

**3x2**  
**PENTSAMENDUAK**



## Kubetako landareak

Lorategian kubetako landareak badituzu, berriak landatzeko garaia da. Hala ere, kontu izan izozteko arrisku handia duten espezieekin. Negua idor joan baldin bada, komeni da erregularki loreontziak eta udaberriko bulboak ureztatzea. Aldiz, euri dezente egin badu, loreontzien drainatze-zuloak aztertu behar dira.



**Kulturkari**  
diseinugrafia eta komunikazioa

- Logotipoen diseinua
- Tarjeten diseinua
- Triptikoak, folietoak, karpetak, gutunazalak, fakturak...
- Kartelak, egutegiak
- Inudi korporatiboak

Ekaitz surretan kontu konpromisarik gabeko!  
Auzoa, 12. 01000 Iruñea. Tel. 948 331 908 kulturkari.com

## Merkaopari

ETXE SARRASU ETA KAMPORDI LURRA - LORONTZIAK - FITO-ARBUKAK - KASATZAO GAIKAK

## Carlos Txoperena

mendi garbiketarak eta landaketarak  
**ITXITURAK**



Tel: 948 637 477  
637 466 124  
**LESKA**

Ezkabarte industrialdea, M1  
31194 ARRE (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 196 453  
Faxa: 948 196 351  
basartea@basartea.com  
www.basartea.com



# basartea

Ingurugiro eta basoen proiektu  
eta ikerketak



**MENDI LANAK • ESKABAZIOAK  
GARRAIOAK • ZERRAKURAK  
GARBITZE MEKANIKOAK**

Leku-Eder, Beritx • 31791 SUNBELLA  
Tel./Fax. • 948 450 504 • 439 847 287 • 499 441 294  
altzuri@yaho.es

**BAXERRI**



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

**616 243 530**

**Ituzkia**  
terapiak • jardineria



**HIDROEREINTZA**  
kimaketak  
berrikuntzak  
mantentzeak

**KIMAKETA BEREZIAK**

Zuhaitzak  
árboles

Zuhaitzak  
arbustos

**FERRIN HARTORENA LARRALDE**  
Nagusia berria, 11  
31791 SUNBELLA (Nafarroa)

666 407 214  
948 631 199

# Fruta-arbolak, bertako barietateak arriskuan

Fruta-arbolak etxera hurbildu genituenetik milaka urte pasatu dira. Orain modan dauden animalien klonak, landareetan ez dakigu noiztik erabiltzen diren. Inork ez daki hazirik, sexuen nahasketarik gabeko lehen ugalketa noiz egin zen. Aldaxka izanen zen lehena, noski, eta txertoa edo mentua ondotik.

## Txertoak




Txertoarekin bi landare betirako lotzen dira sinbiosian, batek sustraiak jarriko ditu, adaburua besteak. Lan honek onura ugari dakar: bestela bizi ezingo litzatekeen ingurunera egokitzeko, gaitz eta izurriteei aurre egiteko, ohi baino azkarrago fruta emateko...

Ugalketarako sistema gisa txertoa erabiltzeak Euskal Herriko bi paisaia nagusien berri ematen digu: isuri mediterraniarrean mahatsondoa; isuri atlantiarrean, aldiz, sagarrondoa. Mahatsarena edo sagarrarena, ardoaren bueltan garatu dugu hemen, ia erabat, ezitzearen edo txertaketaren artea.

Artea bai, bi edo hiru landare txertatuz gure baserriarrek sortzen zituztenak. Zituztenak, bai, arras galtzen ari den ezagutza baita. Gero eta fruta arbola gutiago landatzen dira eta horiek, maiz, kanpokoak edo urrutikoak.

Dagoeneko berandu da ezin bertakoa goak ditugun fruta arbolen barietate basakak babesteko. Nola edo hala, horiek biltzea bezain oinarritzkoa da oihanetan gero eta bakanagoak diren mentuoinak, barietate basakak, salbatzea. Gure kulturaren oinarrietan ere, lurrak ematen dizkigun fruituetan, ardoetan... kanpoeder!

Marka da geurea!



# Lore-denda

VENTA  
**PEÑO**

# Landi Flor

Barazkiak • Etxe barneko eta kanpoko loreak  
Fruta-arbolak • Zuhaitzak • Ureztatzeo tresnak  
Hesiak eta itxiturak • Lorategi eta terrazarako  
apaingarriak • Plastikozko eta lurrezko loreontziak

**DENBORALDIKO LANDARETAN  
ESKAITZA BEREZIA**

**Larunbat eta igandetan irekia**

**Bera (Administrazioa)**  
31780 BERA  
Tel 948 625 130  
Faxa 948 625 123

**Dantxarinea**  
31712 URDAX  
Tel 948 599 389  
Faxa 948 599 446

**Ibardin**  
31780 BERA  
Tel 948 630 719  
Faxa 948 631 306

**Luzaide**  
31660 LUZAIDE  
Tel 948 796 014  
Faxa 948 790 181

# URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → LAUGARREN HIZKUNTZA IKASTEN

## Eskola orduetatik kanpo ingelesa ikasten hasiko dira haurrak hurrengo ikasturtean

Ingelesez aritzeko helduak ere asteartero biltzen dira

### TTIPI-TTAPA

Eleaniztasuna lan- tzeke proiektu berria abiatu dute Urdazubi eta Zugarramurdiko eskole- tan. Joan den urteko urrian hasi ziren asmoa- rekin bueltaka, eta emai- tza hurrengo irailetik ai- tzinera ikusiko da, ikas- turte berria hasten de- nean, alegia.

Gaur egun, bi esko- letan hiru hizkuntza lan- tzen dira: euskara, gaz- telania eta frantsesa. Baina eleantzasunaren proiektu honekin lau- garren bat ere ikasten hasiko dira haurrak: ingelesa.

Helburu horrekin, ira- kasleek Idoia Mentabe- rriengana jo zuten, zen- bait urtez Ingalaterran eta Australian bizitua baita, eta ingelesa ederkimen- peratzen duelako. Ido- iak gogoz hartu zuen pro- posamena, eta hala, hel- du den irailean ingelesa erakusten hasiko da es- kolako haurrei, eskola or- duetatik kanpo. Horre- tarako, ilbeltzean berak eta bertze irakasle batek ikastaro bat egin zuten Lekarozen.

### DATUA

# 16

**FAMILIAK**  
agertu dute interesa  
ingelesa ikasteko  
abian paratuko den  
egitasmo honetan.

### METODOLOGIA DIBERTIGARRIA

Jolas, ipuin, kantu eta eskulanean bidez ikasi- ko dute haurrek ingele- sa, astean ordubetez. Momentuz erantzun ona hartu du, 16 familiak in- teresa agertu baitute. Il- beltzaren 26an Klaustro- ak eta Eskola Kontsei- luak lehenbiziko bilera egin zuten eta egitas- mo honen alde agertu ziren.

### HELDUAK ERE INGELESEZ SOLASEAN

Jende heldua treba- tu dadin, ingelesez min- tzatzeko talde bat ere sortu da. Asteartero elkartzen dira, 16:30ean Zugarramurdiko esko- lan.

Bertzalde, ingelesa ikasteko proiektua hau finkatuta, bertze hizkuntzekin hasteko asmoa ere badago, ka- talana, erraterako. Iku- siko da denborarekin azkenean zer egiten den.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MARGARI ETA KORO

### Inauterietako besta eta Kominiatzeak aurten Urdazubin

Gure bi herri tiki hauek hainbat gauzetarako elkartzen dira. Betitik udaletzeko idazkaria bera izan dugu, eta medikua ere bai. Don Justino hil zenetik, apeza ere bera dugu. Elizako kantariak ere elkarrekin aritzen dira... Eta badira 30 urte eskolak ere elkartu zirela. Hori dela-eta, ekitaldiren batzuk urtez-urte herri saindan egiten dira. Aurten Urdazubin egingen dira bai Kominiatzeak (Jaunar- tzeak) eta bai eskoletako inauteri-besta ere. Argazkia gan den urtean inaute- rietan egindako bestakoa da.

## Atxuria Mendi Taldeak urteko ateraldien egutegia zehaztu du

### Koro eta Margari

Zugarramurdiko Atxuria Mendi Tal- deak 2010. urterako ibilaldien egu- tegia prest dauka. Norbait berria animatzen bada, jakin dezala hila- betearen azkeneko igandean egi- ten direla.

Hauek dira aurtengoz antolatu di- ren ateraldiak:

- Ilbeltzean: San Anton.
- Otsailean: Azkaine.

- Martxoan: Ezkaba (Iruña).
- Apirilean: Berroeta-Lantz (San- tiago Bidea).
- Maiatzean: Centinela mendia.
- Ekainean: Mendaur.
- Irailean: Bera-Hendaia (hondar- tzaraino)
- Urrian: zortzi milak (Belate).
- Azaroan Harpetako saildua (Otxondo).
- Abenduan: Aiako Harriak.

**BURKAITZEA**  
- ostatu  
- erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI



Dantzarineatik  
2 km-tara

**MONTXO** OSTATUA  
TABAKO-DENDA  
ANZAN-BORDA · URDAZUBI  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

# I.E.S. LEKAROS ELIZONDO B.H.I.

## Bigarren Hezkuntza Institutua



### Lekaroz

Uharte auzoa z/g  
31795 Lekaroz (Baztan)

Tel. 948 581 803  
Fax. 948 581 836

[ies.lekaroz@educacion.navarra.es](mailto:ies.lekaroz@educacion.navarra.es)  
<http://centros.educacion.navarra.es/ieslekar>

### Elizondo

Diputazio etorbidea z/g  
31700 Elizondo (Baztan)

Tel. 948 581 805  
Fax. 948 581 840

[ies.elizondo@educacion.navarra.es](mailto:ies.elizondo@educacion.navarra.es)  
<http://centros.educacion.navarra.es/ieselizo>

## IZENA EMATEA

**DBH eta Batxillergoa:** martxoaren 2tik 9ra

**Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa:** martxoaren 2tik 9ra

**Goi Mailako Zikloetarako Prestakuntza ikastaroa:** martxoaren 2tik 9ra

**Hasierako Lanbide Kualifikaziorako programak:** ekainaren 14tik 25era

*Oharra: Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez gurekin kontaktuan*

**ESKUALDEKO ESKAINTZA  
PUBLIKOA**

Nafarroako  Gobierno de  
Gobernua  Navarra

# SENPERE

HAUTESKUNDEAK → MARTXOAREN 14AN ETA 21EAN

## Bessonart auzapeza Forces Aquitaine zentristen zerrendan aurkeztuko da Akitaniako bozetan

Taldeko  
zerrendaburua  
Jean Lassalle  
izanen da

### Franck DOLOSOR

Martxoaren 14 eta 21ean lurralde hauteskundeak eginen dira eta senpenterrek bozkatu beharko dugu Akitaniako lurralde kontseilua berritzeko. Egun hauean, eskuin eta ezkerreko zerrendak presentatzen ari dira eta hautagaien artean senpenter ezaguna agertzen da, andere auzapeza.

Modem alderdi zentristak Forces Aquitaine taldea osatu du boz hautentzat. Akitaniako zerrendaburua Jean Lassalle diputatu biarresa da eta Pirineo Atlantikoetako buruzagia Jean Jacques Lasserre departamenduko presi-

dent ordea da. Lasserren zerrendaren seigarren tokian agertzen da Christine Bessonart. Duela zorbait aste bozetan ez zela presentatuko erran zuen France Bleu Pays Basque irratiari baina azkenean ideiaz aldatu du. La Semaine du Pays Basque asteakarian esplikatu du lurralde hauteskundeak interesgarriak direla. Zerbait behar omen du aitzinatzen. Bertzeak lagundu nahi ditu eta hori egin dezake lasaiki, bere erranetan, kezkarik edo behar materialik ez baitu. Horiek oro aipatu ditu berriki prentsan. Dioenaz, ezin da sekulan erran iturri hortatik ez dela edanen. Momentuz, gusturat ibilki da Herriko Etxean baina ez du deus bazterten.

Gogoratu, auzapeza izateaz gain, Uztaritzeko kantonamenduko



ARGAZKIA: ARANTXA LEIZAGOIEN

### Hartzaren bisita ihauterietan

Ihauterien karietarat, Hartzia ibili da karrika nagusian barna. Auzoetan, aldiz, Zirikolatzen euskal dantza taldeko gazteen bisita izan dute, ohiturari jarraikiz dantzariak etxez etxe ibili direlaketoz. Bertzalde, Zamorajaun andereak urrezko eztaiak ospatu dituzte berriki eta horren karietarat herriko etxeko agintarien bisita eta opariak izan dituzte. Goresmenak.

kontseilari nagusiaren ordezkia, Hego Lapurdiko herri elkargoko president ordea eta Iparraldeko auzapezen biltzarreko presidentia dela Bessonart.

### Bateraren kontsulta

Martxoaren 14an, bozen lehen itzuliaz gain, BATERA plataformaren herri galdeketa eginen da jakiteko herritarrek zer dioten euskal lurralde bat sortzeari buruz. Aferak polemika handia sortu du prefektak gutun bat igorri baitie auzapez guzietan, auzapezak estatuaren or-

dezkariek direla oroitarriz, hauteskundeak biziki garrantzitsuak direla eta ezin direla gauzak nahasi. BATERAren abokatak erantzun du kontsulta hori ez dutela auzapezek antolatzen eta ez dela nahasmendurik sortuko. France 3 Euskal Herri telebistari eskaini zion elkarrizketan biziki hasarre agertu zen auzapeza errezebitu zuen gutun hori biziki hotza, zorrotza eta politezia gutikoa baita. Kontsulta egiten utziko duela errepikatu du hautetsiek zilegitasuna dutelako hori egiteko.

### Etorkizuneko autoak

Ibilgailu elektrikoak erosi dituztenez pentsatzen ari dira Herriko Etxean. Iparraldean gisa huntako ibilgailuak saltzen dituen enpresak ate idekitze eguna egin du berriki eta hantxe izan zen M. Koch Herriko Etxeko zerbitzu teknikoaren burua. TTAPI TTAPAri erran dienez, «tresna berri horiek interesatzen zaizkie hautetsiei eta ez da dudarik ondoko urteetan erosi beharko dituzte».

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!



**Behetik**

Añorga-Ixiki, 14 behea  
T. 943 368 781  
671 073 888  
[www.behetik.com](http://www.behetik.com)





plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...



MUS TXAPELKETA → SARA KO IZARRAK ANTOLATUTA

## Jerome Praderek eta Frederic Barnetxek irabazi dute Errugbiko mus txapelketa

36 bikotek parte hartu dute aurtengo edizioan

### Xan HARRIAGUE

Urtero bezala neguan, Sarako Izarra errugbi taldeak mus txapelketa antolatu zuen joan den urtarrilaren 30ean. Aurtengoan Jerome Praderek eta Frederic Barnetxek irabazi zuten finalean, Serge Bats eta Jean Baptiste Ameztoty mendean hartuz. Arratsalde batez iragan zen txapelketa eta guztira 36 taldek parte hartu zuten.

Bikoteak sailkatzeko partidak jokatu eta gero, txapelketa hiru mailatan banatu zuten: nagusia, bigarren maila eta hirugarren maila. Aipatu bezala, nagusian Pradere eta Barnetxe gailendu ziren. Bigarren mailan, berriz, Elizeiri eta Christophezek irabazi zuten. Finalean Devoux eta Iguinzi irabazi zieten. Bigarren mailako finalean, azkenik, Sandrine Orgogozo eta Odile Ayez, Beñat St Martin eta Peio Iribarreni nagusitu zitzaizkien. Txapelketaren ondotik, anitz izan ziren afaltzeko gelditu zirenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jean Marie Pradere eta Patxi Jauregi taldeko ordezkariak, Jerome Pradere eta Frederic Barnetxe aurtengo irabazleekin batera.

## Zango Arin elkarteak ateraldi txikiak eta luzeak antolatzen ditu astean bitan

Usaian bezala, Zango Arin mendian oinez ibiltzeko elkarteak hainbat ateraldi antolatu ditu hilabete hontan. Hilabete lehen astearteran Esnaurren ibili ziren Zuhalmenditik abiatuz, ondokoan Hiru Mugetako lepoman Nabarlatzetik abiatuz, eta aste hontan, berriz, Ibatelin Lizuniagatik upatuz. Heldu den asteartean, Olaraino joanen dira Urdazubitik abiatuz. Ibilbide irekiak dira eta edozeinek parte har dezake. Interesatuak direnak 13:30ean bildu behar dira Apezetxearen aparkalekuan. Hiru

oren inguruko ibilbideak izaten dira. Baina gisa berean, ostegun guziz ibilbide luzeagoak edo egun osoko ateraldiak antolatzen ditu. Hilabete lehen ostegunean Artzamendiko bordaraino upatu ziren eta bigarrenan, berriz, Atxuriara. Lehenean mehatzeko lepotik abiatu ziren eta bestean Lizarrietatik. Ostegun hontan, Larrun kaskora joanen dira Ate-kaleunen barna. 25ean, aldiz, herriko lurrak utzi eta barnealdera joanen dira Ahuskiko iturria eta Ursula ikustera joateko.

**bainuontziaren ordezkari sistema azkarra**

**628 768 162**  
**650 302 835**

**UREDER**

**Egun bakar batean Obra gogaikarririk gabe**

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

**Zure bainuontzi zaharraren ordezkari jar ezazu dutxa praktiko bat berriz azulejua jartzen ibili beharrik gabe**

An advertisement for Ureder bathroom renovation. The background is blue with water splashes and bubbles. On the left, there's a bathtub. In the center, there's a shower enclosure. On the right, there's a shower enclosure. The text is in bold, black and yellow. There are two phone numbers: 628 768 162 and 650 302 835. The Ureder logo is on the right. The main headline is 'bainuontziaren ordezkari sistema azkarra'. Below it, 'Egun bakar batean Obra gogaikarririk gabe'. Below that, 'Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe'. At the bottom right, 'Zure bainuontzi zaharraren ordezkari jar ezazu dutxa praktiko bat berriz azulejua jartzen ibili beharrik gabe'. There are also some small images of water droplets and bubbles.

## EZKONTZAK

**Asier Hernandorena Lizaso** eta **Leire Arretxea Txoperena**, Legasakoa eta Igantzikoa, otsailaren 6an Igantzin. **Joxeja Maiza Begiristain** eta **Maite Zabaleta Gomez**, Etxarri Aranatzekoa eta Leitzakoa, otsailaren 8an Etxarri-Aranatzen.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Ander Larburu Elizalde**, Etxalarkoa, urtarrilaren 21ean.

**Ainara Zelaieta Aleman**, Elizondokoa, azaroaren 19an.

**Kemen Mitxelena Zubieta**, Lesakakoa, urtarrilaren 29an.

**Rebeca Larraya Navarro**, Leitzakoa, urtarrilaren 17an.

**Aiert Dorronsoro Iparragirre**, Leitzakoa, urtarrilaren 25ean.

**Danel Urtxegi Urrea**, Igantzikoa, urtarrilaren 24an.

**Nahia Etxeberria Perurena**, Goizuetakoa, urtarrilaren 20an.

**Maialen Maritxalar Ibarra**, Mendillo-rikkoa, urtarrilaren 27an.

**Eneko Otxoa Goñi**, Elbetekoa, otsailaren 5ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Jesusa Elizalde Gortari**, Urdazubikoa, urtarrilaren 30ean, 83 urte.

**Juan Arburua Mendiburu**, Urdazubikoa, urtarrilaren 27an, 81 urte.

**Fermin Ibarra Agesta**, Sunbillakoa, otsailaren 6an, 85 urte.

**Carmen Iratzoki Telletxea**, Lesakakoa, urtarrilaren 28an, 81 urte.

**Francisco Urrotz Erbiti**, Urrozkoa, urtarrilaren 28an, 75 urte.

**M<sup>a</sup> Camino Ordoki Biurrarena**, Bera-koa, otsailaren 1ean, 91 urte.

**Francisca Iriarte Dorrargarai**, Oieregikoa, otsailaren 1ean, 80 urte.

**Miguel Arretxea Ariztia**, Urdazubikoa, otsailaren 6an, 89 urte.

**Miguel Eraso Arregi**, Doneztebekoa, otsailaren 7an, 67 urte.

**Maria Eraso Alduntzin**, Doneztebekoa, otsailaren 7an, 99 urte.

**Manuel Iturriria Etxenike**, Erratzukoa, otsailaren 7an, 56 urte.

**Luis Mitxelena Abanz**, Lesakakoa, otsailaren 7an, 78 urte.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



**Fermin  
IBARRA AGESTA**

Sunbillan hil zen, 2010eko otsailaren 6an,  
85 urte zituela

*Egun gogor hauetan  
gure ondoan izan zareten  
eta gure saminarekin  
bat egin duzuen guziei  
mila esker.*

**EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA FAMILIA**

SOKATIRA → MUNDUKO TXAPELKETA

# Amaiur eta Beti Gazte Italian jokatu- den Munduko Txapelketan ariko dira

Otsailaren  
25etik 28ra  
jokatuko da

**TTIPI-TTAPA | AMAIUR/LESAKA**

Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa aste honetan bukatuko da, eta horren ondotik, Italiara begira jarriko dira Amaiur eta Beti Gazteko taldeak. Izan ere, otsailaren 25etik 28ra Cesenaticon jokatu den Munduko Sokatira Txapelketan parte hartzeoak dira Amaiurko gizonetzkoak eta Beti Gazteko emakumezkoak, 560 eta 600 kiloko kategorietan baztandarrak eta 500 eta 540 kiloko mailetan lesakarrak.

**AMAIIURRENTZAT  
BIGARRENA**

Munduko txapelketa batean parte hartzen duen bigarren aldia du Amaiurrek. 1995ean izan zen aitzinekoa, Gastei-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Amaiurko eta Beti Gazteko sokatira taldeak Euskal Herriko Txapelketan.

zen. «1994an Euskal Herriko txapela jantzi genuen 600 kilokoen kategorian, baina ondoko urtean, ez ginen sobera prestatu, eta nahiz eta tirada onak egin, ez ginen finaletara pasatu», azal-

du digu Joxe Urrutia entrenatzaileak. 12 lagunekoa taldea joanen da Italiara: Fermin Iparragirre, Joxean Iriarte, Iñaki Iriarte, Oskar Telletxea, Juanma Irigoien, Joxemi Bengoetxea, Auxtin Ariztia, Mieljoxe Ariztia, Iñaki Urrutia, Esteban Mendiburu tiratzaileak, Joxe Urrutia entrenatzailea eta itzultzaile bat.

Zaila ikusten du Joxe Urrutiak finaletara pasatzea, maila handia baitago Euskal Herriatik aterabere: «Gu baino goitirago dagoen talde bat badugu Euskal Herrian, Abadiño, eta Iparraldeko Napurrak ere joatekoa da eta gure gibeletik izanagatik, arras hurbil dago. Atzerriko taldeak nola dabilzan ez dakit, baina zaila izanen da finaletan sartzea».

Ez da Amaiurren helburua dominak lortzea, baina «serioxeago» entre-

natu dute aurten, eta ikasitakoarekin «esperientzia hartzera» doazela aipatu digu Urrutiak.

**BETI GAZTEKO NESKAK  
ESTREINAKOZ**

Munduko txapelketa batean parte hartzen duen lehenbiziko aldia izanen da Beti Gazteko neskenentzat. Baina gogor egiteko prest daude: «Ahalik eta hobekien ibili nahi dugu», erran digu Paxkual Taberna entrenatzaileak. Prestakuntza «ona» egin dutela nabarmendu digu, eta alde horretatik, «dominaren bat eskuratzeko itxaropena» baduela ere aitortu digu. «Itxaropena ez da galdu behar, baina kontuan hartu behar da lehenbiziko aldia dela eta ez dakigula han zer izanen den».

15 lagun joanen dira Lesakatik Italiara: Oneka Zapirain, Maider Zapirain, Oihana Almandoz, Miren

Alkorta, Irati Martiarena, Karmele Pikabea, Nerea Maia, Karmele Irastorza, Arantxa Feito, Ainhoa Altzugarai, Naiara Maia eta Estitxu Almandoz tiratzaileak, Taberna entrenatzailea, eta prestatzaile fisikoa eta emaitzez arduratuko den bertze bat.

Lehia gogorra espero du Tabernak Italian, etxeko zein kanpoko taldeekin: «Euskal Herriko taldeekin izanen dugu lehia, eta Txina, Japonia eta Herberetakoak ere hor daude. Teknikoki desberdina da eta horrek aukerak ere ematen ditu».

Munduko txapelketan urrea eta zilarrarekin etorri ziren Beti Gazteko mutilak 2004an Glasgowetik (Eskoziak), eta tartean izan zen orain nesken entrenatzailea dena. Tabernaren orduko «esperientzia polita» gogoan, ea ongi moldatzen diren Amaiur eta Beti Gazte Italian.



ESALDIA

«Itxaropena ez da galdu behar, baina kontuan hartu behar da lehen aldia dela»

Paxkual TABERNA  
Beti Gazteko entrenatzailea



ESALDIA

«Euskal Herrian ere maila handia dago eta zaila izanen da finaletan sartzea»

Joxe URRUTIA  
Amaiurko entrenatzailea

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO JOLASAK

# Otsailaren 28an hasiko dira neska mutikoentzako Herri Kirol Jolasak

Arantza, Igantzi eta Basaburuak parte hartuko dute

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak urtero antolatzen dituen Kirol Jolasak otsailaren 28an hasiko dira, eta hilabete beranduago akitu, martxoaren 28an. Ohi bezala, hiru kategoriatan jokatuko dira: kimuen mailan (98-99 urteetan jaiotakoak); haurren mailan (96-97 urteetan jaiotakoak) eta kadeteen mailan (94-95 urteetan jaiotakoak).

Kimuen mailan proba konbinatuan bakarrik ariko dira, hau da,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arantzak, Igantzik eta Basaburuak ateratzen dituzte taldeak eskualdean.

koxkor biltzen (zortzi koxkor), txingekin (80 metro 3 kiloko txingekin), zakuarekin (3 lagunek 80na metro 6 kilo-koarekin) eta lasterka

(160 metro). Haurrak eta kadeteak, aldiz, proba konbinatueta eta sokatiran ariko dira.

Haurren lana hau izanen da: 10 koxkor bil-

du, 5 kiloko txingekin 80 metro egin, hiru lagunek 10 kiloko zakuarekin 80na metro, 160 metro lasterka eta 70 zentimetroko bi korte arpa-

nean. Sokatiran aritze-ko pisua 480 kilokoa izanen da.

Kadeteen eginbeharrak ondokoa izanen da: 12 koxkor, 60 metro 10 kiloko txingekin; hiru lagunek 80na metro 15 kiloko zakuarekin, 240 metro lasterka eta 70 zentimetroko bi korte arpanean. Sokatirarako pisua 540 kilokoa izanen da.

## ESKUALDEKO TALDEAK

Eskualdeko taldeei dagokienez, kimuen mailan, Igantzi eta Basaburuak parte hartuko dute, eta agian Igantzi eta Arantzaren artean bertze talde bat osatu-ko dute. Haurren eta kadeteen mailan, berriz, Basaburuak aterako da.

TRIATLOI ZURIA → ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Espainiako neguko triatloi txapelketan brontzezko domina eskuratu du Patxi Vilak

Berriki Reinosan Campoo Triatloi Zuria irabazi du

## TTIPI-TTAPA | BERA

Txirrindularitza profesionalean berriz ere hasteko itzaropena badi Patxi Vila beratarra eta maiatzera bitarteko epea jarri dio bere buruari, talderen bat harpatu eta han hasteko. Baina bitartean, ez du

geldirik egoteko asmorik eta Triatloi Zurietan (korrika, bizikleta eta eskia) trebatzen ari da Barañaingo Saltoki Lagunak taldearekin. Ez nolahi gainera. Ilbeltzaren 30ean, Reinos-Alto Campoo (Kantabria) 24. Triatloi Zuria irabazi zuen, 180 triatleten artean nagusituz.

Lasterka egin behar ziren lehenbiziko bederatzik kilometroetan ongi eutsi zuen Berakoak eta Antonio Blanco liderre-

tik 20 segundora hartu zuen bizikleta. Horixe da, noski, Vilaren punturik indartsuena eta 24 kilometroko bizikleta ibilaldian lehen postuan jarri zen, Alto Campoo igogorra tartean zela. Honela, bortz minutuko abantailarekin ailegatu zen Patxi Vila iraupen eskiko tartera. Hamar kilometro egin behar izan zituen eta ongi eutsi zion lehen postuari.

Ez da triatloi zurian denboraldi honetan izan



ARGAZKIA: WWW.LAGUNAKTRIATLON.COM

Patxi Vila, Anson Espainiako txapelketa jokatu ondotik.

duen lorpen bakarra, duela aste batzuk Anson (Huesca) jokatu zen Espainiako txapelketan brontzezko domina lor-

tu baitzuen. Aitzinera begira, Aretteko Triatloian parte hartzeko asmoa du, beti ere, prestaketa zaintzeko helburuarekin.



ARGAZKIA: GOIKO

Ilbeltzaren 31ko finaletan jokatu zuten pilotariak.

**PILOTA** → BORTZIRIETAKO TXAPELKETA

# 86 pilotari Bortzirietako Eskuz Banakako Txapelketan

Bortz kategoriatan banatuta aritu dira pilotariak

**TTIPI-TTAPA** | BERA

Ilbeltzaren 31n jokatu ziren Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako Eskuz Banakako IX. Txapelketako finalak. Bortz kategoriatan banatuta, guztira zortzi partida jokatu ziren: aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadete mailako finalak. Partidak bukatu ondotik, sari banaketa egin zen eta zenbat sari ere zozkematu ziren. Aurtengoan da 86 pilotari aritu dira txapelketan.

**Ttikien mailan**, aurrebenjaminetan, Lesakako Arkupeko Asier Larralde 18-11 irabazi zion Berako Gure Txokoako Asier Telletxeari.

**Umeak** edo **benjaminak** bi mailatan aritu ziren. Benjamin B mai-



ARGAZKIA: GOIKO

Finalean aritu ziren gaztetzkoenak: ezkerretik hasita Asier Telletxea (Gure Txokoa) eta Asier Larralde (Arkupe) txapelduna.

lan, Lesakako Arkupe taldeko Jon Leizak, 18-9 irabazi zion Julen Otxoteko herritarrari. A mailan, berriz, Igantziko Biltokiko Enaitz Telletxea izan zen txapelduna, 18-6eko markagailuarekin utzi baitzuen Gure Txokoako Yago Cantero.

**Kimuak** edo **alebinetan** bi mailatan jokatu zuten. B mailan, Lesakako Jonan Arbelai-

tzek 18-16 irabazi zion Gure Txokoako Titouan Mendiri. A mailan Baztango Txarutako Enaitz Anso izan zen txapelduna, taldekidea duen Iker Espelosin sunbeldarrari 18-15 irabazi zion.

**Haurretan** edo **infantiletan** ere bi mailatan aritu ziren eta B mailan Txarutako Mattin Asiain izan zen txapelduna, 18-13 irabazi bai-

tzion Ibai Ros Gure Txokoako pilotariari. A mailan, berriz, Igantziko Unai Telletxea gailendu zen. 18-9ko markagailuarekin utzi zuen Txarutako David Albiasu.

Eguneko azken partida **kadete mailan** jokatu zen eta Txarutarentzat izan zen txapelduna. Arkaitz Untxalo iturrendarrak 18-10 irabazi zion Arkupeko Unai Zamoranori.

**PILOTA**

Hilaren 27an jokatu dira eskuz binakako Malerrekako finalak Donezteben

**TTIPI-TTAPA**

Urtarrilaz geroztik lehiatzen ibili eta gero, eskuz binakako Malerrekako VIII. Pilota Txapelketa ailegatu da azkenera. Otsailaren 27an finalak jokatu dira Donezteben eta hauek ariko dira:

**Benjaminetan**, Umorre Onako (Goizueta) Aizkorbe eta Apeztexea, Biltokiko (Igantzi) Mitxeo eta Telletxearen kontra ariko dira.

**Alebinetan**, Errekako (Doneztebe) Salaberria eta Mariezkurrenakin Tintin III.eko (Errioxa) Zaenz eta Alberdi izanen dituzte kontrario.

**Infantiletan**, Zugarraldoko (Burlata) Larunbe eta Sarasa, Biltokiko Telletxea eta Txapagaingo (Ordizia) Iribarriaren aurka ariko dira.

**Kadeteetan**, finalistak zein ziren oraindik erabaki gabea zen leerro hauek idazterakoan.

**Jubeniletan**, Ilunpeko (Azpeitia) Etxaniz eta Aizpuru Errekako Oronoz eta Txarutako Jauregiren aurka ariko dira.

**22 urtez beheitikoetan**, Aldabideko (Arbizu) bi bikote ariko dira aurrez aurre: J. Ezkurdia-Lukin eta M. Ezkurdia-Araña. **Maila nagusi-an**, Irigoien-Iparragirre (Lesaka-Leitza) bikotea Renobales-Landiribarren (Aurrera Saiaz, Uharte) kontra ariko da.

## otsailak 18 - martxoak 3

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Bertsokak**

IRURITA | 2010.02.27

**Nafarroako Txapelketako bigarren finalerdia**

Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta, Iñaki Aleman herritarra, Iñigo Ibarra eta Luze ariko dira Gizarte Bilgunean, 17:30ean hasita.

**Feriak**

BERA | 2010.02.28

**III. Salgai Hondarren Feria antolatu du Larun Haizpek**

Berako 12 dendetan stockean gelditutako produktuak prezio onean erosteko aukera eskainiko da, 10:00etatik 19:30era Toki-Ona kiroldegian.

**Antzerkia**

LEGASA | 2010.02.19/20

**Inauterien azken txanpa asteburuan**

Ortziral goizeko puxka biltzearekin, bazkari, afariekin, larunbat eguerdiko desfilearekin, bazkariarekin eta musikarekin osatuko da egitaratua.

Golfa eta egitasmo urbanistiko-espeku-latzaileak hitzaldia antolatu du Aroztegia... Eta gero zer? Plataformak, 18:00etan Lekarozko lehenagoko eskolan.

**Bertsokak**

ETXARRI-ARANAZ

**Txapelketako lehen finalaurrekoa**

**Otsailaren 20an** Kultur Etxean ariko dira 17:30ean Julio Soto, Estitxu Arozena, Ander Fuentes *Itturri*, Xabier Terreros, Oskar Estanga eta Saioa Alkaiza.

IRURITA

**Gizarte Bilgunean bigarrena**

**Otsailaren 27an** Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa egingen da 17:30ean Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta, Iñaki Aleman, Iñigo Ibarra eta Migel Mari Elozegi *Luze* ariko dira.

ATARRABIA

**Finalisten izenak jakinen dira**

**Martxoaren 7an** Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalistak ezagutuko dira hirugarren finalaurrekoaren ondotik. 17:30etik aitzinera Indurain Anaiak kiroldegian: Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Arkaitz Goikoetxea, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe eta Jon Barberena.

**Feriak**

BERA

**Salgai Hondarren feria hirugarren aldiz**

**Otsailaren 28an** III. Salgai Hondarren Feria antolatu du Larun

**Erakusketak**

LEGASA

**Herriko argazki zaharren erakusketa**

**Otsailean** herriko argazki zaharrek erakusketa egingen da.

ELIZONDO

**Haurrek birziklatuz tailerlean egindakoak**

**Otsailaren 17tik 26ra** haurrek Birziklatuz tailerlean egindako lanak ikusgai izanen dira Arizkunenea Kultur Etxean, Birbira kolektiboaren eskutik.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Berri Txarrak Lur dantzalekuan**

**Otsailaren 20an** Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du gauerditik aitzinera Lur dantzalekuan. Sarrerak: 12 euro aitzinetik eta 15 euro taileran.

**Tailerrak**

ELIZONDO

**Pintura tailerra**

**Urtarriletik ekaina** arte pintura tailerra egiten ari dira Arizku-

nenean, 17:00etatik 21:00etara. Apuntatzeko deitu 609 329618 telefonora.

**Apustuak**

DONEZTEBE

**Malerrekako aizkolariak lehian**

**Otsailaren 21ean** Hilario eta Migeltxo Mindegia osaba-ilobak, Joseba *Bordazuri* eta Juanito *Arroxeneren* kontra ariko dira 12:00etan Doneztebeko frontoian. Zortzi kanaerdiko moztu be-

hako dituzte eta 3.000 euro jarri dituzte jokoan.

**Inauteriak**

LEGASA

**Puxka biltzeak eta moztuaren desfilea**

**Otsailaren 19 eta 20an** inauteriak. Xehetasunak 21. orrian.

GOIZUETA

**Inauterietako azken parranda**

**Otsailaren 20an** bazkaria eta kalejira egingen dute moztu-

ek. Dantzaldia Bide Batez taldearekin.

OITZ

**Afaria eta dantzaldia Agerralderekin**

**Otsailaren 27an** inauterietako afaria egingen da Herriko Ostatuan 21:00etan eta gero dantzaldia Agerralde akordeiolariarekin.

**Hitzaldiak**

LEKARAZ

**Aroztegia proiektuaren inguruan****Otsailaren 21ean**

## PROPOSAMENA

DONEZTEBE

**Ikusmina sortu duen apustua igandean**

Malerrekan aizkora zaletasun handia dago eta zaleek gozatzeko bertzeko aukera bat izanen dute otsailaren 21ean, igande eguerdian. Hilario eta Migeltxo Mindegia osaba-ilobak (argazkian), Joseba *Bordazuri* eta Juanito *Arroxeneren* kontra ariko dira Doneztebeko frontoian, zortzi kanaerdiko nork lehenago moztu. 3.000 euro jarri dituzte jokoan.



Haizpe elkarteak.  
10:00etatik 19:30era,  
stockean gelditu diren  
hainbat produktu  
erosteko aukera.

## Ospakizunak

DONEZTEBE

### Kasino elkartearen barrikotea

Otsailaren 27an os-  
patuko da 21:30ean.  
Izen emateko azken  
egun: otsailaren 24a.  
Prezioa: 10 euro.

## Mendi ateraldiak

BERA

### Larun Ttikiren ateraldiak

Otsailaren 21ean  
Akozperat aterako di-  
ra Larun Ttiki mendi  
taldekoak. 09:30ean  
abiatu lamoteneatik  
eta Postaseraingo  
kotxez joanen dira.

ZUGARRAMURDI

### Atxuria Mendi Taldea Azkainera

Otsailaren 28an  
Azkainera aterako dira  
Zugarramurdiko men-  
dizaleak.

## Zinema

LEITZA

### Ostiral eta igandetan

Otsailaren 19 eta  
21ean Tomas Alfred-  
son-en *Déjame entrar*  
filmea ikusgai.

Otsailaren 26 eta  
28an Hirokazu Kore-  
eda-ren *Still walking-  
caminando* filmea  
ikusgai.

Martxoaren 5 eta  
7an Juan Jose Cam-  
panellaren *El secreto  
de sus ojos* filmea  
ikusgai.

Ostiralean 22:30ean  
eta igandean 19:30 -  
ean. Sarrera: 6 euro.

Gertaera guztiak  
ikusteko, begiratu:  
**www.ttipi.net**  
(agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Vikingoen sorterrira

XABIER MENDIGUREN

Elkar, 2010

A ita ezezagun eta urrundik miretsiaren bila do-  
an neska; ebakuntza larri baten atarian, bere  
bizitzako amodio sekretua kontatzera doan emak-  
ume heldua; familia-giro itogarri batean bere arre-  
barekiko obsesiotik nola askatu ez dakien mutila;  
parkin batean nahi gabe ume bat zapaldu ondo-  
ren, erruaren zamari aurre egin behar dion gizon  
gaztea... Samurrak eta gordinak dira liburu hone-  
tako istorioak; pertsona baten une bateko zalant-  
zian bizialdi oso baten kontraesanak biltzen di-  
tuztenak; arintasun jostalari batez idatziak, batzue-  
tan, eta gizatasunaren muinera jotzen duen dra-  
matismo puntu batez jantziak, besteetan; bizitza  
oro bezala bakanak eta bitxiak; adin, ezaugarri eta  
bizimodu askotako gizon-emakumeak, leku eta gara-  
rai zehatz batean suertatu direnak: euskal herriren  
batean, oraintxe bertan edo atzo goizean. Maisu-  
tasunez idatzitako ipuin-bilduma, egilearen ibilbi-  
dean heldutasun eta sakontasunezko marka bat  
ezarriko duena, eta irakurlearen gogoan hunkidu-  
razko oroitzapen bat utziko duena.

### Musika



Heldu eskutik

ETXE

Baga Biga, 2009

Etxe kantariaren musika jarduna 2005ean hasi  
ezen, maketa argitaratzearekin batera. Etxe be-  
re kabuz hasi zen maketa eskuetan zuela, eta bi-  
dea egin zuen. Ahots lodi hura sendo sartu zen gu-  
re panoraman. 2007ko udaberrian lehen diskoa iri-  
tsi zen eta bidea egin zuen *Bidea eginez* diskoare-  
kin. Taldearen jitea eta bakarlariaren arteko uztar-  
keta da bere rocka. Etxe kantariaren bigarren dis-  
ko honek gure arreata harrapatu nahi du. Eskua lu-  
zartzen digu, gurekin egin nahi du bidaia. Norberak  
bertzearen beharra nola sentitzen dugun adierazten  
digu. 2009ko uztail, abuztu eta irailean grabatu, na-  
hastu eta eta masterizatu da Berrizko Estoldetan  
estudioan. Jon Olabarriaga izan da soinu teknika-  
ria eta ekoizpen lanak Iñaki Elortzaren eta Etxeren  
artein egin dituzte. Bi laguntzaile ospetsu izan di-  
tu diskoak: Roberto Mosok (Zarama) *Ametsak be-  
tetzen* abestian kantatu du eta Anje Duhaldek *Lur-  
ralde bakarra* abestian ahotsak sartu ditu.

### Internet



Zugarramurdiko  
baliabide turistikoak

[turismozugarramurdi.com](http://turismozugarramurdi.com)

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com) webgunearen  
W aurkezpena egin zuten otsailaren 5ean, 31 zu-  
garramurdiar epaitu zitueneko Logroñoko AutoFe-  
dearen laugarren mendeurreneko ospakizunak ira-  
gartzeko ekitaldien barrenean. Zugarramurdiko es-  
kaintza turistikoa bateratzen duen orria da (Leizea,  
Sorginen Museoa, Turismo Bulegoa, ostatu, jate-  
txe eta alojamentu eskaintza eta Xareta eskualde-  
ko baliabideak) urtean zehar garatuko diren zerbi-  
tzu eta ekitaldien informazio eguneratuarekin, eus-  
karaz, gazteleraz eta frantsesez. Albiste eta bali-  
abideekin batera, historia, agenda, bertze orrialde-  
tako loturak, lotarako edo jateko aukerak, bideoak  
eta bertze hainbat jakingarri biltzen ditu Zugarra-  
murdiko Garapenak kudeatzen duen webguneak,  
baita Zugarramurdiko historia biltzen duen errepor-  
tajetxoa bideoan ere.

## Nire aukera



Mª Karmen IRUNGARAI  
Xorroxin Irratiko esataria

## Denbora librean trankil eta lagunartean egotea gustatzen zait

Xorroxin Irratiko lanal-  
dia akituta, «bertze  
hamar xaltxatan» ibil-  
tzen da Mari Karmen.  
Halere, «egunero ordu-  
bete oinez ibiltzen saia-  
tzen naiz, ez bereziki go-  
goko dudalako, osasu-  
nerako ona delako bai-  
zik eta, hobeki sentitzen  
naizelako. Iruritatik Zi-  
gaurrerako bidea eder-  
ki ezagutzen dugu la-  
gun batek eta biok». Gainerakoan, lagun eta  
familia artean egotea  
gustatzen zaio eta «hori-  
ekin izaten ditugun otor-  
duak eta denborapasa». Horrelakorik suertatzen  
ez bada, «kapaz naiz as-  
teburu osoa etxean pa-  
satzeko, erosketak egi-  
tera bakarrik ateratzen  
naiz». Oporrak? «Kon-  
forme inguruan edo  
Euskal Herriko edozein  
lekutan –dio Mari Kar-  
menek–, ez nuke trena,  
itsasontzia edo hegazki-  
nik hartuko». Azken bi-  
daia Lekeitiora egin zu-  
en duela bi urte, aste-  
buru pasa, sei lagune-  
ko taldearekin. Denbo-  
ra librean... «Trankil ingu-  
ruan eta ingurukoekin,  
lagunekin elkartuta.  
Atzendu gabetanik nire  
animalia kuttunak zain -  
tzeaz, kattuak».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Pisu salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logekek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@aol.com.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

**DONEZTEBE.** Pisu salgai. 3 logela eta 2 komun. 156.000 euro. ☎607 978656.

**LESAKA.** Etxebizitza salgai. ☎609 477277.

**ARANTZA.** Borda erosi-ko nuke. ☎653 122074.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**ELGORRIAGA.** Etxebizitza errentan emateko. Inguruko jendearentzako. ☎630 822018.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**BERA.** Pisu errantant hartu nahi da. ☎620 361964.

**LESAKA.** Etxebizitza edo

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

pisua errentan hartu nahi da. Zaharberritu behar bada, horretarako prest. Erosteko aukera. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**BERA.** Pisu bat konpartizeko norbait nahi da. ☎649 161830.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albis- tur 43. ☎659 609678.

**BERA.** 170 m<sup>2</sup>ko bajera eta 50 m<sup>2</sup>ko lurra salgai. Altzate 15. ☎607 978656.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan emateko

**IGANTZI.** Lokal komertziala errentan edo trasn- pasoan emateko. Estetika zentzurako edo ilea-

paindegirako aproposa. ☎663 881813.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**DONEZTEBE.** 2 partze- la eraikigarriak salgai, 2 etxe egiteko. ☎607 978656.

**ZERBITZUAK**  
zurginak

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....  
- Klase guzietako zurgin lanak  
- Eskatu surretara konpromisarik gabe  
Jose Miguel Gonzalez  
Tel: 948 634 948 - 647 810 144  
Gentilitea: ARANTZA

**LANA**  
eskariak

**Emakume** bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎948 630247.

**Emakume** bat asteburuetan sukaldari laguntzaile lanetan edo fregaderan ariko litzateke. ☎686 911146.

**LANA**  
eskaintzak

**SARA.** Urtxola jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎(0033)

559 541525/686 561525.

**MOTORRAK**  
salgai

**Jeep Grand Cherokee** CRD salgai. 163 CV, Mercedes motorra, 4 urtekoa eta gasoila. ☎607 978656.

**Scania** markako **traile- rra** salgai. Konpletua, baskulantearekin prestatua. Trailerrak 12 urte ditu baina motor berria du (60.000 km). Mutur luzea eta 530 CV. ☎600 901058.

**Kawasaki** K.L.E. 500 salgai, 2007ko ekainekoa. Extrak. Egoera onean. 3.500 euro. ☎619 889723/ yeti2424@hotmail.com (Carlos-Irun).

**Yamaha** WR 250 R salgai, 2008ko apirilekoa. 3.990 euro. Ekipoa opari. ☎619 889723 yeti2424@hotmail.com (Carlos-Irun).

**SANTESTEBAN Tailerrak**

TRAFFIC 1.9 DCI 115CV  
6 jizaketa - 2007koa - 44.000 km

MEGANI GRAND TOUR (EMITZON)  
1.9 DCI 105 CV 2007koa - 37.000 km

MEGANI II DYNAMIQUE  
1.9 DCI 105CV  
2007koa - 12.000 km

SCENIC II DYNAMIQUE  
1.9 DCI 105 CV 2007koa - 30.000 km

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(urtarrilaren 29tik otsailaren 5era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 47,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,032 € kiloa. (+0,017)

**Zerramak:**  
0,360€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,92 (=)  
**1.koa** 3,62 (=)  
**2.koa** 3,02 (=)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,02 (=)  
**1.koa** 3,72 (=)  
**2.koa** 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,75  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,40/7,20  
8-10 kilokoak: 5,10/5,50



**Seat Marbella** salgai, gasolina. SS-AT matrikula. 74.000 kilometro. 900 euro. ☎680 983577.

**Renault Express** salgai. NA-BD. 224.000 KM. 2.000 euro negoziagarriak. ☎670 406162.

**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**GANIX**  
TAILERRA  
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea  
BERA FIAT zerbitzua  
Barandata, 9 - Tel: 948 630 669

**DENETARIK**  
Salerosketak

**ELIZONDO.** Ehiza zakurantzako karroa salgai. ☎627 400520/ 948 581473.

**Belar idorren boloak eta lastoa** salgai. ☎690 776147.

**Ferrol gasolio berogailua** salgai. Bi pisu berotzeko aproposa, batean bakarrik erabilia. ☎618 962777.



2,5 metroko 250 pikete eta 2 metroko bertze 200 pikete salgai, gaztainak. ☎647 276744.

**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**LESAKA.** Hartzaren burua duen pelutxe-manta

galdu da. Haurrentzako garrantzitsua. ☎636 694852.

**HARREMANAK**  
Agurrak

Irungo **39 urteko mutil** batek -erakargarria, langilea, zintzoa eta mendia, eskia eta motorrak gustuko dituena-, antzeko neska bat ezagutuko luke. Laguntasuna eta sortzen dena. [yeti2424@hotmail.com](mailto:yeti2424@hotmail.com). ☎619 889723.

**gaztelu sol**  
iturgintza  
kalifikazioa • saneamendua • gasa  
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156  
Faxa: 948 510 856  
LEITZA

**Inaki Alzuiet margoak**  
Pintura dekoratiboa eta industria • Dekorazio: estukoak, telebista, fitxak • Semeak  
Lakatu eta hanturatu kabinak • Plakak  
Hazi eta egura arnodorazkin garbitzen da  
Tel: 609 962 417 • Iru-tipi etxea • Landibar Auzoa • 31711 UPDZUBI  
[pinturas.alzuiet@yahoo.es](mailto:pinturas.alzuiet@yahoo.es)

**Kulturkari**  
Langilepoen alorrean  
Targeten alorrean  
Trepakoak, bolatxoak, karpesak, gutunazuloak, fakturak...  
Kartelak, egutegiak  
Irudi korporatiboak  
eskola sarrerak  
kompromisoak gabe!  
Anduizeta, 12 - 31760 Etxalar  
Tel: 948 635 458  
[kulturkari.ttipi.net](http://kulturkari.ttipi.net)

**deskontuak**

**ttipi txartela** beti irabazten da, denok irabazten dugu!

**ttipi-ttapa** Informazio gehiago: Anduizeta 12, 31760 ETXALAR Tel. 948 635 458 - Fax 948 635 457 [info.ttipi.net](http://info.ttipi.net) - [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

<b>AUTO ETA BIKIKLETA TALERRAK</b>	<b>HARRIEN DENDA</b>
<b>BERAUTO</b> BERAUTO talerra BERA %10 erabatentzen	<b>POTTOKI</b> LUZONDO %10 aparteko artikulu bakarreko
<b>DATUCELAY</b> DATUCELAY talerra LUZONDO %10 dituen eta erabiltzaileentzako	<b>KORRIK - DENDAK</b>
<b>KATEA BIKIKI</b> KATEA BIKIKI LUZONDO %10 erabatentzen	<b>AGARA</b> KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>SANSINENA</b> SANSINENA talerra LUZONDO %10 erabatentzen	<b>IPARLA</b> IPARLA KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>ZALAIN MOTOR</b> ZALAIN MOTOR talerra BERA %10 erabatentzen	<b>ZELA</b> KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>AUTO ESKOLAK</b>	<b>LENTZERAK</b>
<b>SEMPER</b> AUTO ESKOLA BERA %10 erabatentzen	<b>DENE</b> DENE KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>ARGAZKI-DENDAK</b>	<b>MARCIUSZ</b> KORRIK denda DONEZTEBE, LUZONDO %10 erabatentzen
<b>AYLA</b> ARGAZKI denda BERA %10 erabatentzen	<b>LIBURU-DENDAK</b>
<b>GOIKO</b> GOIKO ARGAZKI denda BERA %10 erabatentzen	<b>NAFARPRESS</b> NAFARPRESS KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>MENA</b> ARGAZKI denda LUZONDO %10 erabatentzen	<b>MAMUR</b> LEITZA %10 aparteko artikuluak
<b>ZALDIA</b> ARGAZKI denda DONEZTEBE, LUZONDO %10 erabatentzen	<b>OPARI-DENDAK</b>
<b>ARROPA-DENDAK</b>	<b>KALOTXA</b> KORRIK denda BERA %10 erabatentzen
<b>BIXKIAK</b> BIXKIAK Arropa denda LEZAMA %10 erabatentzen	<b>OPTIKAK</b>
<b>EDURME</b> Arropa denda BERA %10 erabatentzen	<b>INTZURI</b> INTZURI optika LEZAMA %10 erabatentzen
<b>FANTXIKE</b> FANTXIKE Arropa denda LUZONDO %10 erabatentzen	<b>OSTARZI</b> optika BERA %10 erabatentzen
<b>IPINGI</b> IPINGI Arropa denda LUZONDO %10 erabatentzen	<b>PERTSUAIAK</b>
<b>JUAN J. PIKABEA</b> DONEZTEBE %10 aparteko artikuluak	<b>MENDIAR</b> UPDZUBI %10 aparteko artikuluak
<b>KATTALINGORRI</b> LUZONDO %10 erabatentzen	<b>TINDATEGIAK</b>
<b>BITXO-DENDAK</b>	<b>JAIKONE</b> tindategia DONEZTEBE %10 erabatentzen
<b>ETXARTE</b> ETXARTE bitxi denda LEZAMA %10 erabatentzen	<b>ZAPATA - DENDAK</b>
<b>ESTETIKA ZENTRIAK</b>	<b>OSTIZ</b> zapata denda DONEZTEBE %10 erabatentzen
<b>AMAJA</b> ESTETIKA ZENTRUA UPDZUBI %10 aparteko artikuluak	<b>TXONELKA</b> zapata denda LEZAMA %10 erabatentzen
<b>ETRE- TRESNAK</b>	
<b>ALTZURI</b> etre-tresnak LEZAMA %10 erabatentzen	


# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Zorionak **AIMARTXO!** Urtarrilaren 24an 6 urte bete ditu. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Xabiren aldez.



**KATTALIN BERSASIN GOIA** beratarak otsailaren 6an 8 urte bete ditu. Zorionak Ane, amaxi, amofia eta etxeko guzien partetik!



**MAIDER AGUSTINA JAUREGI** irurtzundarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak Ezkurako amaxi, osaba-izeba eta lehen-gusuen partetik.



**MAIDER AGUSTINA JAUREGI** irurtzundarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak aita, ama eta anaiaren partetik.



Iruñeko **UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENK** 5 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak Donetebeko atautxi eta amaxiren partetik.



Igantzikoko **KEMEN** eta **ENAITZ TELLETXEA SEINEK** otsailaren 11n eta 17an urtea eta 10 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana amatxo eta attatoren partetik.




**GAXUXA ZELAIETA EULATEK** 3 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat Igantzikoko familiaren partetik.



**JON ARRIZURIETA TELLETXEA.** Jontxo Pontxok 8 urte bete ditu otsailaren 12an. Zorionak polita zure familiaren partetik, eta batez ere, zure arreba Naroaren partetik. Muuuuuuuuu



**ANE TELLETXEA IGOA** lesakarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 19an. Zorionak Harizpe eta Sagardibaitako familien partetik.



**ENEIT BERTIZ APEZETXEA.** Aunitz urtez bihurritxo! Ongi pasa eguna eta zorionak familia guztiaren partetik.



Iratzenbordako **MAIANAK** 8 urte bete ditu. Hartu 8 muxu pottolo Maddi, Ganix, aitato eta amattoin partetik.



Leitzako **MARITXU BALEZTENA** eta **IRAIA MARTINIKORENAK** otsailaren 12an eta 10ean urteak bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, eta berexiki ama eta ataren partetik.



Sunbillako **EKIÑE BERTIZ ARIZTEGK** otsailaren 23an urtea beteko du. Aunitz urtez familiaren eta berexiki attato eta amattoin partetik. Muxu handi bat!



Aranoko **MIKEL LEONET AROZENAK** otsailaren 10ean 4 urte bete ditu. Aranoko familia osoaren aldetik muxu haundi bat politta eta ongi pasa zure urtebetetzean.



**ANDONI IRIBARREN INDABURU** etxalartarrak 11 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Zorionak Erratzuko **JOKIN BENGOTXEA**, **IDOIA BIDEGAIN** eta **XUBAN BENGOTXEA BIDEGAINI**, otsailaren 22, 23 eta 24an urteak beteko dituztelako. Muxuak Idaborroko familiaren partetik.



**IZARO ETXEPAREK** otsailaren 21ean 6 urte beteko ditu. Beti prest besta egiteko potxola! Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Kaso belarriarekin!



**MAIANA, BITTOR, MAIALEN, BENAT** eta **JOXEK** otsailaren urteak betetzen dituzte. Aunitz urtez denei!



**IRATXE LOIARTE PETRIKORENA** igantziarrak otsailaren 19an 6 urte beteko ditu. Zorionak! Aita, ama, osaba-izeba, amatxi eta anaia Patxi.



Erratzuko **XUBAN BENGOTXEA BIDEGAINK** otsailaren 24an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu potolo bat Idaborroko familiaren partetik.



Leitzako **IORITZ DORRONSORO IPARRAGIRREK** 3 urte bete ditu. Orain arte bezala jarrai dezazun, muxu haundi bat Aiert, aitaxo eta amaxoren partetik.

**URTEBETETZEAK**

**ZORIONDU**  
Internet bidez

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

# TELEFONO GIDA

INGURU HONETAKO ETXE GUZJETAN ZURE NEGOZIOAREN BERRI IZATEA NAHI BADUZU, JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN ETA MILAKA PERTSONEK IRAKURRIKO DUTE ZURE ANUNTZIOA.



**ttipi-ttapa**  
948 63 54 58  
PUBLI@TTIPI.NET

\* Publizitatea kontratatzeko azken epea: **apirilak 12**



Den-dena eskura eduki nahi baduzu, TELEFONO GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko errexago antolatua.

## NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



[www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com)

# biLDU



Finalaurrekoak:  
**Otsailaren 27an**  
**IRURITako**  
Gizarte Bilgunean  
17:30ean

Iñigo Olaetxea  
Xabier Legarreta  
Julen Zelaieta  
Iñigo Ibarra  
Iñaki Aleman  
Migel Mari Elosegi "Luze"

Nafarroako  
Bertsolari  
Elkartea



Laguntzailea:  
**ttipi-ttapa**

# TTIPI-TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOZKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

**511 ALEKO IRABAZLEAK**

\* **TTIPI-SASKIA**

Maritxu Tomasena Miura | Urdazubi

\* **ARTIC 2 SARRERA**

Edurne Arretxe Adantsa | Ituren

\* **ELKAR 2 LIBURUA**

Maite Arregi Almandoz | Elizondo

\* **ONIN ART KAMISETA**

M<sup>a</sup> Carmen Urriza Indart | Elbete

\* **KALOTXA LOTEA**

Ixidoro Goia Fagoaga | Arantzeta

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epea  
sariak biltzeko

# ZOZKETAK

ttipi-txarteldun guzien artean  
zozketatuko dira sari hauek




**KAMISETA 1  
ONDDO  
TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**BETAGARRI  
ELKAR**  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)



**DVD + CD  
PUNPALAPLAN  
URTXINTXA**  
[www.urtxintxa.org](http://www.urtxintxa.org)



**LOTEA  
MARTIKO**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



**LOTEA  
KALOTXA  
OPARIAK ETA  
OSAGARRIAK**

**2 SARRERA  
CAMELOT PARK**



## DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!  
ERABILI ZURE TXARTELA!

